

hiruka

182. zenbakia
2022ko apirila

GAZTETXEA BAT
ARNAS GUNE BAT
ALGORTAKO GAZTETXEA HERRI EUSKALDUNAREN ALDE



ka
nostiara
apirilaren 10era

Sentitu, pentsatu hitzekin!

22. KORRIKA Uribe Kostan

Zure gustuko

ikasketak euskaraz

eta etxetik gertu

ikasi "euskaraz"
nahi dudalako

EUSKARAZ IKASI ETA B2 MAILA LORTU



EUSKARRA CURRICULUMA ABERASTEKO GILTA

yhd



BILATU EUSKARAZKO IKASKETAK; AUKERA ZURE ESKUETAN

nahidudalako.eus

Bizkaian euskaraz eskaintzen diren
Batxilergo zein Lanbide Heziketak ikasketak
klik batean.

Zure iritzia ezinbestekoa da guretzat.
Sartu www.nahidudalako.eus webgunean,
galdetegia bete eta **sari zoragarriak irabazi.**

1

Microsoft Surface Go 3
Ordenagailua

2

**Mi Electric Scooter
Essencial**
Patinete elektrikoa

3

Kultura eta kirol
materiala erosteko
opari txartela



Aurkibidea

- 4 Puntua eta kontrapuntua
- 5 Erretratua
- 6 Uribe Kostako altxor biologikoak babesteko garaia da
- 16 Euskarari, atara kontuk!
- 17 Zientzia etxeako atarian
- 18 Hirudika: 22. Korrika Uribe Kostan
- 24 Lehen/orain eta Uribitakora
- 25 Mundukatuak
- 26 Berbetan: Hodei Rodriguez, energiaren prezioaren gorakadaz
- 30 Agenda
- 31 Hezkuntzako gehigarri berezia
- 39 Musikhariak: Feline
- 40 Joseba Zarraga, historiazalea
- 41 Osasun Publikoa Aurrera! herri-plataforma
- 42 Irene Pera igerilaria
- 43 Irene Gana piraguista
- 44 Iritziak eta horoskopoa
- 45 Usategi
- 46 Argazkilariaren txokoa
- 48 Hirukira Olgetan: umeentzako denbora-pasak
- 51 Zozketak



hiruka

HIRUKA kooperatiba elkartea

Helbidea: Martikoena, 16, 2.a · 48992 GETXO

e-posta: hiruka@hiruka.eus

Posta-kutxa: 171

Telefonoa: 944 911 337

Publizitatea: Maria Gorostiola

Erredakzioa: Iker Rincon Moreno, Hodei Torres eta Ander Zarraga

Diseinua: Artefakto

Kudeaketa eta administrazioa: Ziortza Merino

Zenbaki honetako kolaboratzaileak: Iratxe Marta, Itxaso Paya, Julen Nafarrate, Joanes Atxa, Riki Mutuberria, Asier Barruetabeña, Irene Larrabeiti, Jon Lopez eta Joseba Santxo

Filmazioa eta Inprimategia: Gertu Inprimategia

Lege-gordailua: BI-2022-2014

ISSN: 2386-98-95

Ale-kopurua: 5.000

CC-BY-SA

Erakunde laguntzaileak



Bizkaia

*foru aldundia
diputación foral*

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

Kultura eta Hizkuntza Politika
Sailak (Hizkuntza Politikarako
Sailburuordetzak) diruz lagundua.

Hitzarekin eta Ekinarekin

IRATXE MARTA LINARES AEK-ko irakaslea



Azken egunotan milaka zoro KORRIKA ibili da Euskal Herriko errepide eta kaleetatik. Gure eskualdean ere kaleak indarrez kolpatu ditugu, euskararen aldeko oihua entzun dadin. Hala ere, ez da gure oihua, gure hitza euskarak behar duen bakarra, ekiteko konpromisoak behar ditu.

Hizkuntza bat hitzekin osatzen den arren, ekimenek eraikitzen dute hizkuntza baten komunitatea.

Euskarak aurrera egitea nahi badugu, euskaldun (pro) aktiboak behar ditugu, konbentzimendutik ekintzara, praktikara, jauzi egingo dutenak. Hitza emana dugu, orduan, bada ekiteko mementoa; orain, ekintzara egin behar dugu jauzi. 22. tantoa bukatzeko garaia da hau.

Ekin diezaiogun berehala: aldekotasunetik konpromisora. Konpromisoak hartu behar ditugu; txikiak, xumeak, baina egingarriak, gure paisaia linguistikoa aldatzen lagunduko duten konpromisoak. Banaka, taldeka, herrika... erakundeek urrats sendoagoak egin ditzaten eragitera behartuko dituzte.

KORRIKA lehenengo ekintza izan da, ezinbestekoa da partida hau irabaztea. Ekiteko ordua da, orain bukatu behar da tantoa, orain irabazi behar da norgehiagoka. Eginez eragingo dugu eta eginaraziko diogu elkarri, guztiok elkarrekin.

Nire panpina

ITXASO PAYA RUIZ Sortzailea



Gogoan daukat lagun on bat ezkondu zen eguna. Pozik zegoen bera egun eder hori lagunekin partekatu ahal izateagatik, eta detaile polit bana oparitzea erabaki zuen, eguneko parranda izugarriaz gain. Bai, etxerako modukoa da Leire. Eskuz egindako panpina bana oparitu zigun, pertsonalizatua.

Mairen panpinak lehorgailua eta orrazia zeukan eskutan, ile-apaintzaile ezin hobea den seinale; Irenerenak, arkitektoaren eskuadra eta kartaboa. Irarenak kazetari itxura zeukan, mikrofono eta guzti. Morirenak enpresari alkandora zeukan jantzita, eta Nerearenak ingeniariaren bata zuria.

Haiena ikusita nirea ezagutzeko irrika sartu zitzaidan. Nolako ote zen nirea? Begiekin erraz identifika daitezkeen ezaugarriez gain, bertsolariaren txapela izango zuen buruan ala igerilekuko txanoa? Antzezlerik onenaren Oscarra edukiko zuen eskutan ala gitarra bat? Kamera bat bestela? Getxo Kirolak-en txandala izango zuen jantzita ala dantzariaren tutua?

Poztasun handiz zabaldu nuen nire panpina gordetzen zuen poltsatxo, behetik gora eta ezkerretik eskumara ondo miatuz. Nire panpina esku-hutsik zegoen.

Eta zure panpina? Nola apainduko lukete zure lagunak? Eta zuk zeuk?

Puntua eta kontrapuntua **Uribe Kostako hezeguneak**

Bizitzaren sorburuak



*Aniztasun handiko
hainbeste inguru,
Uribe Kostan bertan
bizitza sorburu.
Hezeguneei buruz
berbaz dihardugu,
zaindu behar direla
daukagu seguru,
baina guk behar beste
egiten ahal dugu?*

**PERU
VIDAL
GURRUTXAGA**
Getxo

*Aniztasuna dute
oinarri nagusi.
Animalien dutxa,
landareen jacuzzi,
Uribe Kostan ere
ez ditugu gutxi.
Nahizta azkenaldian
batenbat erauzi,
ezin dugu bidea
horren erraz utzi.*

**MIKEL
ARRATE
ZELAIA**
Berango



Asier Rodríguez *Masti* Alconza-Irizarreko langilea

«Borrokari jarraituko dugu enpleguak babestu arte»



Berangoko Alconza-Irizarreko langileak greba mugagabeen daude, enpresak 38 langile kaleratu gura dituelako. Negoziaketek momentuz porrot egin dute.

TESTUA: JULEN NAFARRATE • ARGAZKIA: HODEI TORRES ▶

Geldi dago Berangoko Alconza-Irizar lantegia. Ez dago langile edo kamioien joan-etorririk. Hormak, oster, mezuez josita daude: «Etorriz duinaren alde», «Gora langileon borroka!», «Irizar lapurrak». Greba mugagabeen daude bertako langileak, enpresak 38 langile kanporatzeko asmoa duelako: «Borrokari jarraituko dugu enpleguak babestu arte, gure etorkizuna dago jokoan». Berbak Asier Rodríguez *Masti*-renak dira, baina gainontzeko kideek ere bat egiten dute baieztapen horregaz. «Gogorra da greban egotea, baina ez dugu beste biderik izan».

16 urte daramatza *Mastik* Alconzan beharrean. Berangoko enpresa eskualdeko lantegi handienetako bat da: «98 langile ditu gaur egun, eta beti izan da sektore honetan

erreferentea. Lehen, barkuentzat motor eta sorgailuak egiten genituen, baina dena aldatu zen Irizarrek enpresa erosi zuenean». 2013an izan zen hori, eta orduantxe hasi zen enpresaren gainbehera, langileen berbetan: «Aldaketa ugari egin zituzten: zuzendaritzan, produkzioan, erosketetan... Lehen, burdina sartzen zen ate batetik eta makina bat irtezen zen bestetik. Baina orain dena kanpoan erosten dute, etxean egin beharrean». Estrategia aldatuta hori izan da, sindikatuen arabera, Alconza porrotera eraman duena: «Dependentsia itzela dugu kanpoan egiten diren piezekin orain, batzuetan txarto datoz... Lehen, hemen sortzen genituen makinak, osorik, eta errentagarria zen».

Enpresaren azken erabakia izan da langileak kaleratzea: «Ez dira gai izan, gainera, hona etortzeko aurpegia ematera. Enpresa bat kontratatu dute hori kudeatzeko». Langileek hainbat proposamen aurkeztu dituzte: aurre-erretiroak, plan industrial bat... Baina ez da akordiorik egon. Borrokari jarraituko dute: «Eskerrak eman nahi dizkiegu babesa eman diguten guztiei. Tubacexeko langileak etorri dira, auzokideak... Zuen indarrari esker aurrera egiten ari gara». ◀

Uribe Kostako altxor biologikoak babesteko garaia da



1 Bolue

Iraganean askoz ere azalera handiagoa hartzen zuen arren, gaur egun, Uribe Kostako hezegunerik adierazgarriena eta hobeto zainduena da.



2 Astrabudua

Erandio eta Leioa artean dagoen hezegunea mehatxatuta dago ortu ilegalen, hondakin-uren isurketen eta landare inbaditzaileen ondorioz.



3 Lertutxe

Erakunde publikoak urtegi zaharrak desegitearen aldekoak dira, errentagarritasun gutxi dutelako eta horiek mantentzeko gastua altua delako.



4 Urbietta

Lemoizko zentral nuklearraren ondoko urtegia behatoki interesgarria da, bere lasaitasunari esker, hainbat kaio eta ahate bertaratzen direlako.

Egoera txarra

Galzorian

Egoera ona

Egokitze-prozesuan

Hezeguneak eta urmaelak toki osasungaitz izatetik altxor biologiko eta ekologikoak izatera pasatu dira. Horretaz kontziente diren herri-ekimenei esker gero eta babes eta garrantzia gehiago ematen ari zaie. Gurean horrelako hainbat habitat izateaz gain, horien defentsan ari diren elkarteak ere baditugu.

TESTUAK: **ANDER ZARRAGA** ARGAZKIAK: **HODEI TORRES, SEO/BIRDLIFE** eta **XABIER BUENETXEA** ▶



5 Txipio

Itsasaldien eragin zuzena duen aparteko padura eta Butroe ibaiko itsasadarra geraleku aparta dira hainbat hegazti migratzaileentzako.



6 Lamiako

Lamiakoko hezegunea Gobela eta Udondo ibaien bokalean dago. Horren mehatxu nagusia bertan eraiki gura duten araztegi handia da.



7 Asua ibaia

Inguruko industrien eraginez, Bizkaiko ibairik kutsatuena da. Ikerketa sakonik egin ez diren arren, fauna eta flora baliotsuko hezegunea izan daiteke.



8 Urko

Lemotza, Matadero eta Torreko erreka elkartzen diren uholde-eremuan putzu batzuk egin zituzten 2015ean bertako ibarra berreskuratzeko.

Ura bizitza da, eta urak etengabe edo aldizka hartzen dituen lur eremu lauetan eta itsasbazterretan bioaniztasun izugarriko ekosistemak sortu ohi dira. Eremu horietan bizitzera espezializatu diren hainbat animalia eta landareen bizileku dira, baina baita gizakioi ere hainbat onura ematen dizkiguten gunek ere: ura pilatzeko eremuak direnez, uholdeak arintzen dituzte; itsasertza egonkortzen dute; ekosistemen adierazle biologikoak dira; eta ura arazten dute, besteak beste. Azken urteetan aisialdirako tokiak ere bihurtu dira, baita txorien atzetik dabilzan turisten erakarguneak ere. Hala ere, mundu osoan mehatxatuen dauden ekosistemetako batzuk dira, zabortegi bezala erabili, gaixotasunen sorlekutzat jo eta, oro har, gizakiarentzako leku deserosoak izan baitira beti. Urbanizazioa eta nekazaritza dira hezeguneen etsai nagusiak, eta basoetan gertatzen den ez bezala, horietako biztanle asko ezin daitezke beste habitat batera mugitu, bizirauteko baldintza jakin batzuetara lotuta daudelako.

Horiek babesteko eta zentzuzko erabilpenak sustatzeko, 1971n Ramsarko hitzarmena sinatu zuten mundu osoko 154 herrialdek. Euskal Herrian bederlatzi hezegune babesten ditu hitzarmen horrek; horietako bat ere ez dago eskualdean, baina horrek ez du esan gura gureak garrantzitsuak ez direnik.

URIBE KOSTAKO HEZEGUNEAK. Gure eskualdean hezegune txikien aniztasun handia daukagu, bakoitza bere fauna eta flora bereizgarriagaz: Butroe ibaiko estuarioa, hainbat ibai eta erreka ertzetakoak, potzu txikiak, Lemoiz eta Lertutxeko laku antzeko hezegune lakustreak, eta Txipio eta Astrabuduko hezegune palustreak edo zingiratsuak. Hainbat ezaugarri partekatu arren, hezegune bakoitzak bere baldintzen arabera fauna eta flora propioa du. Horietatik, esanguratsuen da Boluekoa, bere tamaina eta aniztasunagatik. Lezkadi-azalera handiek eta erriberako basoek osatzen dute Getxo eta Berango arteko hezegunea; gainera, aldiro egiten dituzten mantentze-lanei esker, barruko zenbait ur-putzu ditu, oso egoiak hainbat espezierentzat.

Astrabuduko eta Lamiakoko hezeguneak Boluekoaren antzekoa dira, baina lohiz beteta daude eta baratze ilegalek hein handi batean lehortu dituzte; ondorioz, ez daukate ia ur-laminarik. Gainera, landare inbaditzaileak asko ugarritu dira horietan, eta habitata mugatu dute. Hala ere, animalia-espezie askoren bizileku izaten jarraitzen dute.

Beheko aldeetan kokatzen diren Bolue edo Astrabudua bezalako hezeguneen arazoa ibaian gora egiten den luraren kudeaketatik dator: urbanizazio-lanek eta baso-ustiapenek lur asko mugitzen dute, errekek lur hori hezeguneetara eramaten dute eta bertan sedimentatzen da. Berez, prozesu naturala izan arren, giza jarduerak hori areagotu egiten du eta, gainera, gizakiaren jardueraren ondorioz, hezeguneen eremua geroz eta murriztuago dagoenez, gune horiek laster lehortzen dira. «Europar, hezeguneak gaztetu egiten ari dira, hau da, lohiz bete aurreko egoerara bueltatzen dira, gizakiaren jarduerak areagotu duen prozesu hori leheneratzeko. Lehen, dragatu egiten ziren, baina orain, sedimentuen goiko aldeak bakarrik kentzen da; horri esker, ur-lamina lortu daiteke, paisaia heterogeneo batez», azaldu du Xabier Buenetxea baso-teknikaria eta natur gaietarako Getxoko udal-aholkulariak. «Prozesu horren ondoren, hainbat animalik kolonizatzen du eremua, eta biodibertsitatea azkar berreskuratzen da: hegaztiak eta intsektuak joaten dira hasiera batean, baina gerora anfibioak agertu eta lezka-diak ere hedatzen dira».



Eskualdeko hezeguneen kokalekua eta bakoitzaren egoera eta arrisku-maila.

«Hezeguneetan bizi diren animalia asko horrelako ekosistemetan bakarrik bizi daitezke, oso espezializatuta baitaude. Beraien habitata galtzen badute, anfibioak eta arrainak, besteak beste, desagertu egiten dira»

XABIER BUENETXEA
BASO-TEKNIKARIA ETA
UDAL-AHOLKULARIA

«Orain ikusten ari gara hezeguneak erakargarriak ere izan daitezkeela. Horren adibide argia da Gasteizko Salburua, hiriko lekurik preziatuena bihurtu dena hainbat jarduera egiteko»

ARTURO ELOSEGI
BIOLOGOA, IKERTZAILEA ETA
EHUKO IRAKASLEA

Horretaz gain, eskualdean ur-azalera handiko hezegune lakustre bi daude: bata, Lemoizko zentral nuklearraren ondoko Urbieta urtegia, eta, bestea, EHUKo Leioako campuseko Lertutxe urmaela. Horrelako guneek ur-azalera handia eta sakonera nahikoa dutenez, aha-teentzako, itsas-txoentzako eta hegazti migratzaileentzako interesgarriak dira. «Horrelako urtegi zaharrak ez dira bideragarriak erakunde publikoentzat, beraz, horietako asko desagertzen joango dira», azaldu du Buenetxea.

Txipioko padurak ere garrantzia handia dauka mota horretako ekosistemen artean, izan ere, kostaldetik hurbil dagoenez eta itsasaldien eragina duenez, itsasotik datozen hegazti migratzaileentzako geraleku aparta da. Bertan lertxunak, karioak eta, tarteka, mokoza-balak eta antzarak ere ikus daitezke.

Horretaz gain, Uribe Kostan beste hainbat hezegune txiki daudela azpimarratu du adituak: Gorrondatxe hondartzakoa, Lamiakoko hezegunearen ondoko ibarra –bertan ere hegazti migratzaile eta negutar asko egon ohi dira– eta Tosun egondako putzu txikiak, besteak beste. «Garrantzitsua da baita Itxe ibaiaren inguruan dagoen hezegunea, Berangon. Duela gutxi etxebizitzaren eraikuntza-enpresa batek porlana bota zuen inguru horretan, eta askok salatu egun hori».

ESKUALDEKO HEZEGUNEEN BABESA. Hezeguneak eta, oro har, natura-guneak babesteko sortutako herri-mugimenduen lanari esker salbatu dira horrelako hainbat ekosistema munduan zehar. Zientzialariek guneon garrantzia eta balioa adierazteko geroz eta ikerketa gehiago argitaratzen dituzte, eta horiek babesteko sortutako mugimenduek bultzatzen dute eraldaketa. Uribe Kostan, horrelako baliabide naturalen defentsan dabilen hainbat talde eta auzo-elkarte daude aktibo: Berango Lurraren Defentsan, Sopolako Kiribile elkarte eta Lamiakoko Ibarren Defentsarako Plataforma, besteak beste. Horien lana berebizikoa da hezeguneen berreskurapenerako eta babeserako, baita horretan beharrezkoak diren erakunde publikoen inplikaziorako ere.

Uribe Kostan, talde horien hainbat ekintza ekar genitzake lerrootara, baina, adibide moduan, azkenaldian Astrabuduko hezegunean Herri Bideak Kate Barik eta Auzokoa Herriko elkarteek egindakoa laburbilduko dugu: gune horren garrantziaz jabetuta eta bere gainbehera ikusita, garbiketa-jardunaldiak eta berbaldiak egiteaz gain, gunea ikertzeko eskatu zioten Uraren Euskal Agentziari, eta gune hori babestu dezatela eskatu zieten Erandio eta Leioako udalei. Ikerketan azalduenez, uste zena baino fauna eta floraren babesleku garrantzitsuagoa da, baina oso hondatuta dago: saneamendu-sareko isurketek, legez kanpoko baratzeek eta landare inbaditzaileek asko kaltetu dituzte. Hala ere, elkarrekin kideak baikor daude, Erandioko Udalak hezegunearen garrantzia eta berreskurapena kontutan hartzen hasiko dela uste baitute. Horrelako beste eredu bat Txipio Bai elkartearena da, 1991n hainbat barrikoztar eta plentziar elkartu zituen, eta paduran egin gura zituzten makro-urbanizazioa eta portua geldiarazi zuena, hain zuzen.

«Toki hauek suntsitu ditugu, ekosistema zigortuenak izan dira, beraz, zor bat dugu beraiekaz, oinarriko ekosistemak baitira hainbat espezierentzako. Gainera, edonork bere etxeko lorategian egin dezake horrelako putzu txiki bat animaliak erakarriko dituen», nabarmendu du Buenteak. 80ko hamarkadan mugimendu oso indartsuak egon zirela gogoratu du teknikariak, eta, beherakada baten ondoren, azken urteetan udalerrri mailako talde txikiak asko sortu direla dio: «Herri bakoitzean dauden guneak babesten dituzte, eta horien lana oso garrantzitsua da habitat txiki horiei garrantzia ematen dietelako eta babesa bultzatzen dutelako». Gaineratu duenez, horrelako hezeguneak erraz berreskuratu daitezke modu naturalean behar bezalako mantentze-lanak egiten baldin badira.

Arturo Elozei biologoa, ikertzailea eta EHuko irakaslea ere bat dator ekosistema horiek babesteko beharragaz: «Garai batean, leku horiek zikinak, usain txarrekoak eta arriskutsuak bezala ikusten genituen, baina orain ikusten ari gara erakargarriak ere izan daitezkeela. Horren adibide argiak dira Gasteizko Salburua edo Irungo Plaiaundi, hiriko lekuri preziazuenak bihurtu direnak hainbat jardueratik. Horrelako lekuek beste dinamika bat ere ematen diete hiriei». Azpimarratu du herri mailako elkarrekin lana ere berebizikoa dela horrelako eremuak babesteko orduan, «arduradunek auzokideek eta herritarrek nahi dutena egingo dute, eta jendeak natura-guneak berreskuratu nahi dituela esaten badu, agintari politikoek hori egingo dute». ◀

Hezeguneetako biztanleak

Mokozabala. *Plataleinae*



Tamaina handiko hegazti honen ezaugarri deigarriena bere moko zabal bitxia da; horri esker, sakonera gutxiko uretan hondoko lohia aztertzen du jatekoaren bila. Hegazti migratzailea da, beraz, udaberrian eta udagoienean ikusi ohi da gure inguruko hezeguneetan.

Koartzatxo itzaina. *Bubulcus ibis*



Koartzatxo mota honen 30-40 ale inguruko talde negutar batek Astrabuduko hezegunean dauka bere lotegia. Hegazti hau abere ugari dagoen eremuetan egon ohi da, eta landa-soroetan eta sakonera gutxiko hezeguneetan bilatzen du elikagaia.

Uhandre marmolaire. *Triturus marmoratus*



Uhandreak, igelak eta apoak bezalako anfibio txikiak garrantzi handia dute eskualdeko hainbat tokitan dauden putzu txikien ekosistemetan, baina kutsaduragatik gehien sufritzen duten animaliak ere dira, azaletik arnasten baitute.

Arrain hiruarantza. *Gasterosteus ginnurus*




Gobela eta Asua ibaietan eta Bolue eta Astrabudua hezeguneetan aurki daitezkeen arrain txiki hau kutsadura maila jasangaitzetan biziraun du orain arte. Gurean mehatxatuta dago, beraz, hezeguneen eta ibaien kudeaketa bere ugalketa-aldien araberakoak dira.

Apoarmatu istilzalea. *Emys orbicularis*



Bolueko hezegunea da dortoka mota honen erreproduzitzeko hezegune bakarra ekialdeko Kantauri itsasoan. Neguan ez dira ikusten, urrian lohian hondoratzen baitira negua igarotzeko. Urte asko bizi ohi dira, eta batzuek 100 urte izatera ere hel daitezke.

Uroilo arrunta. *Gallinula chloropus*



Hezeguneetan ibili ohi den tamaina ertaineko hegazti hau nahiko arrunta da eskualdeko hezegune eta ibai-hertzeetan. Nabarmenak dira bere hanka berde-horixka luzeak, eta punta beilegia duen moko gorri ikusgarria, helduen kasuan.

Getxo Duela sei urte kiskali zen

Miloi bat euro Fadurako garagardotegi zaharra berritzeko

EAJ, PSE-EE, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos alderdien aldeko botoakaz onartu du Getxoko Udalbatzak 1.002.2015 euroko kreditu gehigarria garagardotegi zaharra eraberritzeko. Horri esker, azaldu dutenez, proiektu eta enpresa berriak kokatu ahal izango dira, kirolari lotutako zerbitzuak edo produktuak eskaintzeko, baita askotariko jarduerak egiteko ere. Eraikina, ematen zaizkion erabileren arabera eta eskaintzen dituen zerbitzuen arabera, ekipamendu publiko kolektibotzat joko da. Proiektuaren ezaugarriak herritarrek parte hartzeko Thinking Fadura prozesuaren barruan osatu dituzte. ◀

Getxo Filatelia Elkartea

Erakusketa filatelikoa berreskuratuko dute maiatzean

COVID-19aren pandemiak eraginda urte biko geldialdiaren ostean, urtez urte egin izan duten erakusketa filatelikoa egingo du Getxoko Filatelia Elkartea maiatzaren 16tik 22ra, Romo Kultur Etxean. Aurtengoa, gainera, Cecilo Cagigal elkarte horretako lehenengo presidentearen oroimenez egingo dute. Erakusketa horrez gainera, maiatzaren 17an, 17:00etatik 20:00etara bitartean, posta bulego bat jarriko dute Romo Kultur Etxean, bertatik erakusketa gogoratuko duten baliogabetze bereziagaz korrespondentzia bidali ahal izateko. ◀

Getxo Getxoarte

Maiatzaren 9ra arte eskatu ahal izango dira Egoitza Bekak

Getxoko Kultur Etxeak Getxoarte Egoitza Bekaren hirugarren edizioa abiarazi berri du. Ekimen horrek arte garaikideko proiektuak sustatu gura ditu, tokiko kolektibo espezifikoak bitartekotza eginez, artea herritarrei hurbiltzeko eta sormen-prozesuetan inplikatzeko asmoz, besteak beste. ◀

Getxo Lope de Vega kaleko udal-eraikinen etorkizuna

Maiatzaren 8ra atzeratu dute herri-galdeketa

Apirilaren 3an egitekoak ziren Itzubaltzeta/Romoko eraikinen inguruko galdeketa; halere, eguraldia zela-eta, hura atzeratzea erabaki du Eraisketari Ez - Romo taldeak.



Eraikinak babesteko hainbat mobilizazio egin dituzte urteotan. HODEI TORRES

Guztira, lau bozketa-gune eta lekuz leku aldatzen joango den beste bat jarriko du Eraisketari Ez - Romo plataformak datorren maiatzaren 8an, domekan, auzoan. Horietan, herritarrek hurrengo galderari erantzuteko aukera izango dute: «Ados zaude Lope de Vegako eraikinak eraistearekin?».

Joan den uztailean, Eraisketari Ez - Romo plataformak 4.000 sinadura baino gehiago batu zituen Lope de Vega kaleko 12 zenbakiko udal-eraikinen inguruko herri-galdeketa bat egin zezan eskatzeko Udalari; auzoko 17 kolektibok eta elkartek ideia hori babestu zuten baita ere. Hala ere, gobernu-taldeak (EAJ eta PSE-EE) eskaera hori onartu ez duela deitoratu du plataformak, eta, hori dela eta, bere kabuz, datorren maiatzaren 8an auzokideei euren iritzia eskatzeko galdeketa egingo dutela iragarri dute.

BELAUNALDIEN ARTEKO ZENTROA.

Itzubaltzeta/Romoko Lope de Vega kalean dauden nagusien etxe eta euskaltegi zaharrak batzen dituen eraikinak bota gura ditu Getxoko Udalak, Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzagaz, belaunaldien arteko zentro bat egiteko. Horren aurrean, Romo plataformak deitoratu du «auzoko memoria historikoa suntsitu» egingo dutela, eta azpiegitura hori «Bizkaiko beste edozein lekutan» egiteko proposatu du, «Romo auzoari ezinbesteko zerbitzua ematen dion ekipamendua hondatu beharrik gabe».

Kontuak horrela, beste behin ere, Lope de Vega kaleko eraikinak eraisteko asmoa bertan behera utz dezatela eskatu dio Getxoko Udalari eta Bizkaiko Foru Aldundiari: «Auzoarentzako benetako proiektuak nahi ditugu, haien beharrei erantzungo dietenak, gure eraikinak eta ingurua errespetatuz». ◀

Sopela Apirilaren 30ean

Sopelako Esaera Zaharren Txapelketa, prest!

Bi eta lau pertsonen arteko taldeak osatu behar dira lehia horretan parte hartzeko. Interesa dutenek apirilaren 25era arte dute izena emateko aukera.

Urteroko ohiturari jarraiki, apirilaren 30ean, zapatuan, egingo dute Sopelako Esaera Zaharren Txapelketa. Aurtengoa hogeita zazpigarren edizioa izango da eta, urtero legez, udalerriko AEK-k egun osorako egitaraua prestatu du. Horretan parte hartu gura dutenek daborduko eman dezakete izena, apirilaren 25era arte, esaera.zaharrak@ae.k.eus posta elektronikora mezu bat bidalita. Antolatzaileek azaldu dutenez, taldeka parte hartu behar da norgehiagokan, beraz, gutxienez pertsona biko taldeak osatu beharko dira eta, gehienez, lauokak.

Txapelketa apirilaren 30ean izango da, eta, ordura arte, antolatzaileek osatutako esaera zaharren zerrenda ikasi beharko dute izena eman duten parte hartzaileek. Izan ere, txapelketaren gakoa honakoa da: egunean zehar, bertsolariek hainbat bertso kantatuko dituzte, eta taldeek asmatu beharko dute zein esaera zaharrari dagokion bertso bakoitza. Ez dago esaerak edozein modutara esaterik, bakoitza zerrenda ofizialean agertzen den modu berean adierazi beharko da, hau da, berbaz berba eta hizkiz hizki.



Parte hartzaileek esaera zaharrez osatutako zerrenda bat ikasi beharko dute.

Bertsolariek hainbat bertso kantatuko dituzte, eta taldeek asmatu beharko dute zein esaera zaharrari dagokion bertso bakoitza.

Hala, eguerdiko 11:30ean ekingo diote jaialdiari Sopelako udaletxeko plazan. Bertan, ibilbideak zehaztu eta, 12:00ak aldera, musikariek zein ALBEko bertsolariek lagunduta, lehenengo fasea hasiko dute tabernaz taberna. Ondoren, 14:30ak aldera, herri-bazkaria egingo dute udalerriko Artadi garagardotegian eta, ostean, 17:00ak aldera, finalurrekoak jokatuko dituzte. Horieta sailkatuko direnek, Ainhoa Agirreazaldegi eta Etxahun Lekue bertsolarien laguntzaz, finala jokatuko dute, eta puntu gehien lortzen dituen taldeak jasoko du txapela. Aurreikusten dutenez, lehia 19:00-19:30ak aldera amaituko da. ◀

Iñaki Bitxitegia

Montblanc, Longines eta TagHeuer agentzia ofiziala

Villamonte plaza 3 Algorta Telletxe 1
94 430 23 45 94 460 27 41

hiruka

HARTU BOLADA ONA GUGAZ. EMAIOZU BULTZADA ZURE NEGOZIOARI!

Zure enpresaren edo negozioaren urte osoko publizitate-kanpaina jaso gura baduzu ipini zaitez gugaz harremanetan:
944 911 337 / 688 811 368 • publi@hiruka.eus

Leioa SOS Kurkudi**Udalak Domingotarren proiektuaren inguruko txostena ezkutatu du**

Sos Kurkudi plataformako kideek jakinarazi dutenez, EAEko Lurralde Antolamendurako Batzordea Domingotarren komentuan egin gura duten egitasmoaren alde azaldu da. Plataformakoek deitoratu dute Udalak informazio hori otsailaren 9tik zuela, baina ezkutatu duela; izan ere, txostena oposizioko zinegotzien laguntzari esker lortu omen dute. Horretan, 25.000 metro koadroko kiroldegi pribatu bat egiteko eraikuntza-proiektuaren alde azaltzen da Batzordea. Plataformako kideek adierazi dute hori albiste txarra dela, «hirigintza jasangarri eta lurzoru naturalaren alde babesa defendatzen dugunontzat», egitasmoa behin betiko onartzeko aukera zabalik uzten duelako.

«Informazio hori ezkutatu diote Leioako herri osoari, eta ez soilik Kurkudiko lurzoru naturalaren aldeko manifestua sinatu zuten 7.000 pertsoneri», salatu dute plataformako kideek. Gogoratu beharra dago 2021eko uztailaren 27an SOS Kurkudik prozeduraren egoerari buruzko informazioa eskatu ziola Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendurako Sailari, baina ordutik ez dutela inolako erantzunik jaso.

Plataformarentzako albiste txarra izan arren, «kausa justu baten aurrean egoteko kemena eta konbentzimendua» geratzen zaizkiela adierazi dute, eta oraindik defentsan aritzeko bideak dituztela gaineratu dute: besteak beste, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jartzeko aukera eta herritarren mobilizazioetara jotzea. Beraz, hurrengo mugimendua erabakitzeko elkartu eta neurri berriak azalduko dituztela iragarri dute. ◀

Berango Gerrako kaltetuentzako laguntza**Berangoztarrek alde adeitsuena azaldu dute Ukrainako umeen alde**

Berangoko Udalak eta Unicef erakundeak antolatutako martxa solidarioan 200 familia inguruk parte hartu zuten, eta 6.500 euro baino gehiago batu zituzten.



Martxaren ondorengo ekitaldiaren irudi bat. BERANGOKO UDALA

Berangoztarrek bere elkartasuna adierazi zieten Ukrainako gerra pairatzen ari diren umei, Udalak eta Unicef erakundeak apirilaren 3an antolatu zuten familientzako martxa solidarioan. Guztira, 197 familiak parte hartu zuten horretan eta, Udalak jarritako 3.000 eurori esker, umeentzako botikak erosteko 6.541 euro batzea lortu zuten.

Isidro Elezgarai, Unicef Euskadiko Batzordeko presidenteak Anabel Landa alkatearen eskuetatik jaso zuen horretarako txekia. Gainera, Getxon bizi den Veronika Pershyna gazte ukrainarrak gerrak sortutako egoera lazgarria deskribatu eta jatzotzen ari diren gehiegikeriak salatu zituen: «Han ez dugu non bizi, ezin gara itzuli etxeak suntsituta daudelako». ◀

Petra Enea

Hartu atseden familia edo lagun artean inguru natural paregabean

5 togeta y bainugela, txakoa, igerilekua, barbakoa

Izoria (Arabako iparraldea) 618 805 464

f i

ARANTZA ETXEBARRIA
Hortz-Klinika

Odontologia orokorra
Ortodontzia

Periodontzia
PADI

Bidebarri 27, behe eskuina · ALGORTA 944 307 696

Erandio Apiriletik azarora

Gasolinoak bisita gidatuak egingo ditu aurten ere

Iazko arrakasta ikusita, Erandioko Gasolinoak bisita gidatuak errepikatuko ditu apiriletik azarora bitartean. Txangoek gida elebidun baten azalpenak ere izango dituzte.

Apirilaren 23tik aurrera, itsasadarra itsasontzi historiko batetik ezagutzeko aukera bueltatuko da. Iaz hasi ziren bisita gidatuek hainbat bisitari erakarri zituzten, bai herrikoak baita kanpoak ere. Izan ere, Gasolinoaren egungo egoera ekonomiko larria arintzeko asmoagaz sortutako bisita gidatuak hainbat herritarren eta Erandio eta Barakaldoko udalen ekimenaren ondorioz sortu ziren.

Aurrekoetan egin duten bezala, bidaiariak mota bi egingo dituzte: alde batetik, Erandioko moilatik San Anton zubira joango direnak itsasadarrean gora apirilaren 23an, maiatzaren 21ean, ekainaren 11n, uztailaren 23an eta irailaren 17an; eta, bestetik, bost ateraldi egingo dituzte Erandiotik Abra bokalera maiatzaren 7an, ekainaren 4an, uztailaren 9an, irailaren 3an eta urriaren 1ean. Ateraldi guztiek euskarazko zein gaztelerezko azalpenak emango dituen gida elebidun baten la-



Gasolinoaren egoera ekonomiko larriak zerbitzuaren bideragarritasuna kolokan jarri du.

«Bisiten helburua itsasadarreko paisaia eta industria-ondarea ezagutzera ematea izango da, gaur egungo testuinguruan kokatuta eta gure udalerriko historia ezagutzera emateko helburuagaz»

JORGE GONZALEZ
TURISMO ZINEGOTZIA

guntza izango dute. Horrek, industriaren eta merkataritzaren historiagaz zerikusia duten gaiak azalduko ditu, eta Bilboko lehen merkataritza-portua sortu zenetik historia hurbilera arte itsasadarra izan duen paperean sakonduko du.

Ateraldiak 12:00etatik 14:00etara izango dira, eta gehienez 30 lagun ontziratuta ahaliko dira bakoitzean. Izen-ematea turismoa@erandio.eus helbide elektronikora idatziz egin beharko da, eta bidaiari bakoitzaren prezioa zazpi eurokoa izango da; adingabeek hiru euro ordaindu beharko dituzte, baina doakoa izango da lau urtetik beherakoentzat. ◀

Sopela 1991n sortu zen

Itzartu Sopelako emakumeen kultur elkarteak agur esan du betiko

Itzartu emakumeen elkarteak hainbat jarduerak, tailer eta kultur ekintza antolatuko ditu Sopelan, 1991n sortu zutenetik. Pili Serrano Itzartuko presidentek baieztatu duenez, «elkarteak bere hasierako helburuak gaindika bete ditu». Dionez, elkarteak eratu zenean, udalerrian ez ziren horrelako jarduerak egiten emakumeentzako, eta elkarteak eskaintza sortzen hasi zen. Horretaz gain, emakume sopoloztarrak elkartzeko eta hainbat jarduerak antolatzeko baliatu dute el-

Azken antzerkia Itzartukoek azken antzezlan bat ere egin zuten martxoaren 27an. «Amigas desgraciadas» antzezlanagaz, eskerrak eman zizkieten publikoari hainbat urtetako maitasunagatik.

kartea, eta lortutako emaitzak oso pozik daudela adierazi du: «Azpimarratuko nuke emakume asko etxetik ateratzea lortu dugula, eta gainera oso modu independentean antolatu gara». Elkarteak uzteko erabakiak arrazoi sinplea dauka: «Ez dago inor gure lanaren erreleboa hartuko duenik, beraz, disolbatzea bakarrik geratzen zaigu. Tamalgarria da». Hala, gaur egun elkarteak dauden kideak oso nagusiak direla dio eta COVID-19ak ere kalte handia egin die. ◀

Berango-Urbe Kosta Otxantegi Herri Lurra

Nekazaritza kaletarrei gerturatzeko herri-proiektua

Egitasmoaren bultzatzaileek baratze komunal bat jarri dute martxan, eta, besteak beste, euren helburua da nekazaritzaren garrantzia azpimarratzea.

Berangon, XV. mendeko Otxandategi dorretxearen lurretan, herri-proiektu berri bat aurkeztu zuten joan den apirilaren 2an: Otxantegi Herri Lurra. Egitasmoaren bultzatzaileek azaldu dutenez, baratze komunal bat jarri dute martxan, eta, besteak beste, euren helburua da, nekazaritzaren garrantzia azpimarratuta, landamundua kaletarrei gerturatzeko.

Urbe Kostako nekazaritza biziberritzeko asmoz, inguruko hainbat herritarrek Otxantegi Herri Lurra izeneko proiektuari hasiera eman diote Berangon, Otxandategi dorretxearen lurretan. Hodei Rodriguez egitasmoaren bultzatzaileetako batek azaldu duenez, darabilten lursaila nekazaritzarako erabili izan da urte luzez, «lau belaunaldiz dorretxean errenta zaharrean bizi ziren pertsonak iaz bota zituzten arte gutxienez». Orduetik, lurrok landu barik egon dira, eta gauzak horrela utzi beharrean, horiek berreskuratu eta nekaza-



Proiektua aurkezteko jaialdia egin zuten apirilaren 2an. OTXANTEGI HERRI LURRA

Irekia

«Proiektu guztiz irekia da; berangoztarrak zein Urbe Kostako edozein auzokidek parte har dezake hemen»

ritzarako mantentzea erabaki dute ekintzaileek, baratze komunal bat martxan jarritz.

Ortua lantzeaz gainera, proiektu horren helburua baserriaren eta hiriaren arteko zubi lana egitea ere bada. Izan ere, aktibistek deitoratu dutenez, azkenengo urteetan eskualdeak bizi izan duen urbanizazio-prozesuek «ia ezinezko» egin du nekazaritzan aritzea: «Oso zaila da gaur egun lurra lantzeko lursail bat aurkitzea nekazaritzan hasteko». ◀

Erandio Sententzia

Erandioko Gestamp Try Outeko ABEEa baliogabetu du epaitegiak

Gestamp Try Out enpresako langileak hilabeteak daroztate bigarren mailako beharginak direla salatzen, eta, horren harira, Bilboko Lan Arloko epaitegiak ebatzi du Gestamp Tooling Erandio egin duena legez kanpoko delatuta, ELA sindikatuak jakinarazi duenez.

Lan Ikuskaritzak egindako txostenak zioen Gestamp Tooling Erandio eta Gestamp Try Out enpresetan langileen lagapen irregularra egin ari zela, eta horixe ontzat hartu du epaia.

«Ez da enpresaren aurka eta langileen alde lortutako epai bakarra»

ELA SINDIKATUA

Hala, aldi baterako erregulazio espedienteetan dauden langile guztiak lanean hastea ahalbidetu beharko luke enpresak laster. «Ez da enpresaren aurka eta langileen alde lortutako epai bakarra. Orain arte, lagapen irregularren harira eskuratutako epai individual guztiek langileari ematen diote arrazoia, eta enpresari eskatzen diote arazoa konpon dezala», azaldu du sindikatuak. Halere, Gestampek gatazkagaz epaitegietan jarraitzeko aldeko apustua egin duela deitoratu dute langileek. ◀

Munduan hainbat hizkuntza daude
hizkuntza bat mundua da,
hitz bakarrean mundu bat dago
gure munduan euskara
hitz egitean bi mundu biltzen
dira bakar batetara
eta euskaraz hitz bakoitzean
mundura zabaltzen gara.



EUSKARAZ ERE,
NATURALTASUNEZ



Euskarari, atara kontuk! Joanes Atxa Olaiiz

Lekukoagaz ikurrina, hitzekin hizkuntza

Hizkuntza guztiek dituzte ezaugarri bereizgarri eta bitxiak. Batzuk historian zehar indartsu irauten dute, beste batzuk bidean galtzen diren bitartean. Oraingoan, hizkuntzaren historian zehar bidaiatuko dugu, euskararen ezaugarri bitxi bat aurkitzeko asmoz.

Hiru urteren ondoren, 22. Korrikak berriro hartuko ditu aurten Euskal Herri osoko kale eta errepideak. Itsasertzean olatuek ematen diote bultzada eta Pirinioetako azken tontorreraino heltzen da, gauez zein egunez, gelditu gabe.

Pasio eta emozio betez bizi ditugu, petoa jantzita, bide ertzean Korrika igaro arte itxaroten ematen ditugun une zirrargarri horiek. Berandu bada ere, beti heltzen da korrikalari olatu koloretsua. Albotik pasatzean ilea tentetu egiten du. Segundo gutxi batzuk irauten ditu momentu berezi horrek, baina nahikoa da deskribaezina den hori sentitzeko: poza eta hunkidura. Emozioa eta zirrara. Urduritasuna eta ustekabea. Indarra eta lasaitasuna. Kema eta harrotasuna.

Zenbat sentipen, eta denak bikoteka. Egitura horri, alegia, elementuak bikotean jartzeari *koordinazioa* deritzo hizkuntzalaritzan eta baita logikan edo matematikan ere. Euskaraz 'eta' lokailuaren bidez sortzen ditugu eta euskalki guztietan zehar erabat orokorra da hitzak edo esaldiak lotzeko lokailu hau erabiltea.

Baina, betidanik erabili izan dugu 'eta' lokailua? Ez, aspaldiko euskal hiztunek bazuten hitzak lotzeko modu oso berezi bat, mendeak



Lekukoa

Lekukoak egiten duen bezala, euskararen historian ere hizkuntzaren hainbat ezaugarri hedatuz joan dira Euskal Herriko hamaika txokotan.

joan eta mendeak etorri desagertuz joan dena. Koordinazio forma zahar honek *-gaz* atzizkiarekin lotzen zituen hitzak: *zu eta ni = zugaz ni*.

XVIII. mende amaiera arteko testuetan ageri den koordinazio forma da hau, eta bere aurkikuntzak badu gure euskalkiekin harremana. Testu zaharrak aztertzen dituzten hizkuntzalariek mendebaldeko hizkerei loturiko ezaugarria zela uste izan zuten hasieran, beste euskalkietan agertzen ez zena. Izan ere, forma bitxi honen bidez loturik agertzen ziren hitzak Bizkaiko eta Gipuzkoako testu zaharretan besterik ez baitziren agertzen. Ikertzaileek, ordea, euskararen historia osoan zehar bildu diren idazki, bilduma, kantu eta ipuinak arakatu dituzte forma bitxi honen bila eta hara non, behin baino gehiagotan agertu da inork espero ez zuen eremuetan: Nafarroa iparraldeko ibarretan, Sakanan eta baita Araban ere. Joan Perez Lazarraga XVI. Mendeko idazle arabarrak ere hala izendatzen zituen bere izen-abizenak: *apelliduagaz nombrea*.

Badirudi, beraz, hitzak lotzeko modu bitxi eta zahar honek bere bidea egin zuela, behinola, Euskal Herriko hainbat txokotan zehar. Korrikak egiten duen bezala, emozioagaz zirrara barreiatuz, herriz herri, lekukoagaz ikurrinak bidea zabaltzen duela. ◀

22.korrika
HITZ EKIN
Amurriotik Donostiara
2022ko martxoaren 31tik apirilaren 10era

MATERIALA HEMEN SALGAI:
Korrika dendetan, AEKren euskaltegietan eta www.korrika.eus atarian.

korrika.eus



Zientzia etxeko atarian Riki Mutuberria Zabala

Jaten dugun plastikoa

Duela lau bat urte lagunekin afaltzera joan nintzen, eta plastiko erre bat aurkitu genuen haragian. Ordura arte, ez nuen osasun-arazotzat hartu, ikertzen jarri eta gizakiok astean batez beste 5 gramo plastiko jaten dugula jakin nuen arte; kreditu-txartel baten parekoa.

Plastiko hitza grekotik dator; moldagarria esan nahi du. Izan ere, plastikoa oso moldagarriak dira; milaka forma, propietate eta aplikazio dituzte. Gaur egun, plastikoaren aroan bizi gara, ia ezinezkoa baita horiek gabe irudikatzea bizitza, nahiz eta duela 120 urte inguru hasi ginen sintetizatzen.

Azkenaldian, mikroplastikoei buruzko argitalpen zientifikoak asko ugaritu dira, eta askok azaltzen dute ekosistemetan eta izaki bizidunetan eragina dutela. Mikroplastikoak 5 mm baino gutxiagoko plastikozko partikulak eta zuntzak dira, eta horien uretako kontzentrazio handiek inpaktua dute izaki bizidunen eta ekosistemen osasunean, eta are kezkarriagoa dena: duela gutxi, Herbeheretako ikerlari batzuek mikroplastikoak aurkitu dituzte giza odolaren laginetan.

Nondik dator jaten dugun plastikoa? Zientzialariek produktu susmagarriei erreparatu diete lehenik, batez ere, urari eta urarekin egiten direnei. Ur mineralaren markak aztertzean, hamarretik zortzik mikroplastikoak dituztela ikusi dute, iturriko uretan aurkitutakoak baino kantitate handiagoetan. Halaber, mikroplastikoak aurkitu dituzte itsas gatzetan, arrainetan, itsaskietan eta garagardoa bezalako edarrietan, beren ekoizpenean ura erabiltzen dutenak.

Zer egin dezakeguk?

«**Edozein teknologiarekin bezala, garrantzitsuena teknologia behar bezala erabiltzea da. Kontsumitzaile garen aldetik, plastikoaren erabilera murriztu dezakegu, eta plastikoak, hala nola arropa sintetikoak, plastikoan ontziratutako produktuak eta erabilera bakarrekiko plastikoa, kendu ditzakegu gure erosketatik. Garrantzitsua da behar bezala berrerabiltzea eta birziklatzea. Gure ordezkari politikoei eta enpresetako jasangarritasun-arduradunei ere idatz diezaikegu plastikoarekiko konponbideak eta bestelako aukerak eskatzeko»**

Mikroplastikoei eragina al dute gure osasunean? Mikroplastiko batzuek erakutsi dute laborategian landatutako zelulentzako toxikoak direla, eta horiek egiteko erabiltzen diren konposatu toxiko batzuek hantura, antzutasuna eta minbizia eragiten dutela. Munduko Osasun Erakundeak ondorioztatu du plastikoei ez dutela osasun-arazorik eragiten, baina duela gutxi egindako ikerketen emaitzak kontrakoa adierazten dute. Gainera, funtsezkoa da ulertzea gure osasuna eta gure ingurukoena gauza bera direla.

Nondik datoz mikroplastikoak? Gehienak arropa sintetikoetatik, pneumatikoetatik, pinturetatik, eraikuntzako materialetatik, krema esfoliatzailetatik, hortzetako pastetatik eta kosmetikako beste produktu batzuetatik askatzen dira. Beste batzuk naturan poliki-poliki higitzen diren plastikozko ontzi eta produktuetatik datoz; izan ere, urtean ekoizten diren 400 milioi tona plastikoaren % 80 ez dira birziklatzen.

Izaki bizidunetatik datozen biomaterialak, plastiko sintetizatutako bezain plastikoa, askotarikoak eta aldakorak dira. Funtsezkoa da kimikan oinarritutako ekonomia batetik produktu biologiko konpostagarrietan oinarritutako bioekonomia zirkularrerako trantsizioa bultzatzea. Konponbidea, nola ez, bitzitan dago. ◀

GetxoGas

Urteko 365 egunetan gaude zabalik

- Garbiketa gunea
- Denda eta okindegia
- GnG tailerra
- Solaguren Jatetxea

☎ 944 301 500

📍 Getxo eta Berango artean

GetxoGason Euskararekin bat!

irati

MODA GAZTEA ETA ARROPAK

94 491 12 71

iratialgorta@gmail.com

Torrene, 2 48991 – ALGORTA

bai euskarari

Instagram and Facebook icons

22. Korrika, Uribe Kostan barrena

Pandemiaren eraginez, ohi baino urtebete gehiago itxaron behar izan dugu euskararen aldeko lekukoa eskualdeko kaleak zeharkatzen ikusteko. Egun bitan egin du Korrikak agerraldia gurean, Erandion apirilaren 6an, eta gainontzeko udalerrietan hurrengo egunean. Guztira, 68 kilometro egin ditu lekukoak hemen, eta, horren atzetik, milaka euskaltzalek hitzez ekiteko konpromisoa hartu dute. Herri hau euskaraz sentitu eta pentsatu... Hitzekin!

ARGAZKIAK: AEK ▶

ri
k Donostiara
ilaren 10era











Lehen/Orain **Begoñako galerien aurreko trolebusen geltokia**



ITURRIA: MEMORIAS DE GETXO

Uribitakora



ALBE

Algortako
Bertsolari
Eskola

TESTUA

Aitor Fdez. de
Martikorena
Rodríguez

DOINUA

Esperantzarik
gabeko zenbait

ARGAZKIA

Hodei Torres

Txikiek (ere) badute zer irakatsi

Gure artean inurritxoek ez daukate fama ona: erotu gisa aritzen dira beti hara eta hona; atsedean barik, egun osoan, sentituz ezinegona; janari bila etengabean bata bestearen klona... Egunez egun, beti lan bera, bai asperdura sakona!

Baina munduan edozein gauzak izan badu ifrentzua: eta inurri-herri hori ez dugu, jakina, txatxua. Denon onura bilatzekotan egin ohi dute esfortzua; denok batera jarduten dira gaztea zein adintsua... helburu hauxe baitute argi: jendarte orekatsua.

Guk haiengandik ez al genuke zerbait ikasi beharko? Behin ikusita elkar lagunduz ez doakiela txarto... Elkartasuna susta dezagun gaur, utzi barik biharko; denok batera ibil gaitezen xalo eran, ez zatarto; munduko etxean izan dezagun zenbat jende hainbat kuarto.



**Miren Jone
De la Maza
Llaguno**


Nongoa
Algorta.

Adina
28 urte.

Zertan dabil
Lanean irakasle
moduan.

**Noiz heldu
zinen?**
2019ko urrian.

**Noiz arte
bertan?**
Oraindino ez du
zehaztu.



Lurraldea
Frantziako itsasoz
haraindiko
departamendua.

Azalera
376 km².

Hiriburua
Mamoudzou.

Biztanleria
270.372 (2017).

Hizkuntzak
Frantsesa da hizkuntza
ofizial bakarra; halere
bertako biztanleek
shimaorea zein
kibushia darabilte.

Moneta
Euroa.

«Oso zaila da hemengo gauza bitxi guztiak zerrendatzea»

IKER RINCON MORENO ►

Algortan hazia, 17 urte zituenetik ibili da Miren Jone De la Maza Euskal Herri-tik kanpo; Madrilen egin zituen ikasketak eta, orain, Indiako ozeanoan dagoen Komoro artxipelagoko Mayotte irlan bizi da, Mtsangoua izeneko herri txikian. 2011tik Frantziako Estatuko itsasoz haraindiko departamentu bat da hori, eta bertako institutu batean dabil espainol-irakasle. 2019ko urrian egin zuen salto algortarrak irla horretara, lehenago Madagaskar ondoko Reunion irlan egon ondoren: «Bertan ezagututako lagun batek esan zidan Mayotten lanpostu bat zegoela eta, une horretan, abentura hau probatu behar nuela esan nion nire buruari. Bi aste geroago, hemen nintzen».

De la Mazak dioenez, lan egiten duen ikastetxetik gertu dagoen etxetxo batean bizi da, oso leku lasaian. Halere, iaiztik kotxea erabiltzen du irlatik mugitu ahal izateko, «izan ere, hemen ez dago garraio publikorik». Hala, «munduko kostalde politenatarikoa» ezagutzeko au-

ker a izan du, baita bertako naturaz gozatzeko ere. «Hemengo natura tropikala eta oso ahaltua da; bi baobab mota daude, eta paisaia askotariko fruta-arbolez jantzita dago».

Irlako errepideetan, albo bietan, fruta ezberdinetako zuku freskoak eros daitezke, eta baita kokondoaren enborretik ateratzen den edari berezi bat, «alkoholik ez duen arren, mozkortzen zaituena». Izan ere, gogoratu behar da irla horretako biztanleak musulmanak direla eta, ondorioz, ez dutela alkoholik edaten.

Kulturari dagokionez, irlatik pasatu diren zibilizazioen aztarnak atzeman daitezke: «Afrikar kontinenteko ukituak daude janzkera tradizionalan eta hizkuntzan, arabiarren erlijioa eta hizkuntza, eta Madagaskarreko musika eta tradizioa». Hala, hizkuntza ofiziala frantsesa izan arren, swahilitik datorren eta arabiarren influentzia duen shimaorea erabiltzen dute bertan, baita Madagaskarreko kibushia ere. «Nire ikasleekin askotan euskararen egoera euren hizkuntzen egoerarekin konparatzen dut eta, horregatik, ahal dudan guztietan shimaorez hitz egiten diet frantsesa erabili ordez». ◀



KLIMA AIDAKETA DA SINTOMA

KAPITALISMOA GAIXORFUNAI!

Hodei Rodriguez Arrutia Sukar Horia talde ekologistako kidea

«Gure sistemaren oinarria oso ezegonkorra da»

Iaz ere argindarraren prezioak igoaldia izan zuen arren, azken asteotan goia jo du gurean; horri, gainera, erregaien garestitzea gehitu behar zaio. Ondorioz, hainbat zailtasun bizi izan ditu egunotan gure ekonomiak, baina askoren poltsikoek ere. Baina, zer ari da gertatzen? Zer dago prezioen gorabehera horien atzean? Zer egin daiteke erregai fosilekiko dependentziari aurre egiteko?

TESTUAK: IKER RINCON MORENO ARGAZKIA: HODEI TORRES ►

Hasteko, nondik sortzen da guri datorkigun argindarra? Gaur egun, mundu mailan, asko aldatzen ari da mix energetikoa. Gure kasuan, iberiar penintsulan, azkenengo urteetan eolikoa izan da argindar-iturri nagusia, baina oso gertutik jarraitzen diote nuklearrak, gasaren ziklo konbinatuak eta hidroeletrikoak. Lau energia-iturri horiek dira argindarra produzitzeko bide nagusiak gaur egun gurean.

Azken hilabeteotan, gora eta gora joan da argindarraren prezioa. Zerk eragiten du garestitze hori? Prezioa sistema baztertzailen baten bidez ezartzen da nazioartean. Hau da, argindar guztiaren prezio finala energia sortzeko bide garestienak ezartzen du, eta hori da gasarena orain. Orduan, azkenengo urteetan, eta bereziki azken asteotan, gasaren prezioa asko handitu da, eta horrek eragin du garestitzea.

Zergatik da gasa garestiena? Produktoreak enkante batean sartzen dira argindarra saltzeko. Energia berriztagarriek eta nuklearrak ezin dute aukeratu noiz produzitu; nuklearrak uneoro egon behar du sortzen, ezin da erreaktorea gelditu, eta berriztagarriek naturak hala ahalbidetzen duenean sortzen dute. Orduan, halako argindarra sortzen dutenei komeni zaie produzitutakoa momentuan sal-

%30

igo da martxoan argindarraren prezioa aurreko hilabeteagaz alderatuta, batz bestea.

2

eurorainoko prezioan ikusi ahal izan dugu egunotan gasolinaren eta gasolioaren prezioa hainbat tokitan.

20

zentimoko deskontua egiten hasi dira gasolindegietan erregaiak erosterakoan, Espainiako Gobernuaren aginduz, prezioen gorakadari aurre egiteko.

tzea erabiltzeko, eta oso merke jartzen dute prezioa enkantean. Aldiz, hidroeletrikoek eta gasa darabiltenek –ikatz gaur egun oso gutxi erabiltzen da, baina duela gutxira arte oso inportantea zen merkatu elektrikoan–, horiek bai aukera dezakete noiz jarri martxan, eta horiek dira prezioekin jolasten eta prezioa garestitzen dutenak.

Hidroeletrikoen kasuan, joan den udan, hainbat urtegi ura askatzen ibili ziren ia muturreraino. Zer eragin du horrek? Bai, udan, normalean, komeni da urtegi ura gordetzea lehortei aurre egiteko eta zelaiak ureztatzeko. Hala ere, argindarraren prezioa oso altu egonenez, eta ura askatzea oso merkea denez, sortutako energia saltzeko aprobetxatu zuten preziorik garestienean. Modu horretan, izugarriko irabaziak izan zituzten; *windfall profits* deritzo horri. Hala, hainbat urtegi ura askatu zuten edukieraren % 10eko kapazitatara heldu arte, eta arriskuan jarri zituzten herritarrak, ezin zelako aurrekusi lehorteirik egongo zen edo ez. Baina, tartean, Iberdrolak, adibidez, irabazi milioiudunak izan zituen jokaldi horren bidez. Hortaz, hor ikusi ahal izan genuen uraren kudeaketa interes publikoaren esku egon beharrean, lehorteak edo uholdeak ekiditeko kasu, enpresa handien esku daudela, eta horiek erabiltzen dituztela irabaziak handitzeko.

Nondik dator energiari prezioa ezartzeko sistema hori? Lehen, Espainiako Estatuan, argindarraren prezioa urtearen hasieran ezartzen zen, dekretu bidez, eta kilowatt-orduko salneurria berdina zen urte osoan. Halere, Europak merkatu elektrikoa liberalizatzeko arau bat ezarri zuen 90eko hamarkadaren erdialdean, eta Aznarren gobernuak martxan jarri zuen hori 1998an. Ordutik hainbat aldaketa egon dira, baina finkatu zituzten gaur egungo sistema elektrikoaren ardatz nagusiak, hala nola sistema baztertzailea handizkako merkatu elektrikoaren prezioak finkatzeko.

Aldaketa horregaz, zeinek atera zuen etekin gehien? Argi dago: handikiek. Oligopolioentzako bideratuta dago sistema; eurek euren irabaziak are gehiago handitzeko.

Noraino igo daiteke argindarraren prezioa? Ez dago toperik. Baina, orain, azkenengo asteotan Ukraina eta Errusiaren arteko gerraren ondorioz gasaren prezioa asko igo denez eta horrek argindarraren prezioak markak haustea eragin duenez, Europa mailan muga bat ezartzea eztabaidatzen ari dira.

Aurretik, baina, Espainiako Gobernuak hainbat neurri hartu zituen faktura merkatzeko: BEZa txikitu, sortze elektrikoaren zerga kentzea eta elektrizitatearen zerga txikitzea. Hala ere, ez da nahikoa izan. Zelan merkatu liteke argindarraren prezio hori? Egin behar dena da elektrizitatea saltzeko prezioa ezartzeko metodoa aldatzea. Eta hortik harago, amaitu behar da enpresa elektrikoek merkatu honetan duten boterea-ekin. Nire ustez, ezin da izan argindarra bezain inportantea den lehengai bat egotea enpresa horien irabazien esku.

Noraino sar dezakete eskua gobernuak horretan? Egia da zenbait gauza Europatik datozela, baina maila horretan ere estatuetako gobernuak erabakitzen dute. Dena dela, adibidez, enpresa elektrikoak publiko bihurtu daitezke, horretarako bai dituelako aukerak Espainiako Gobernuak; edo

Zer da trantsizio ekologikoa?

«Zaila da laburtzea, baina joan behar gara kontsumoa txikitzen eta banaketa hobeto baterantz joaten. Sukar Horia taldekoon ustez, funtsezkoa da bide horretan egiten diren aldaketek onurak ekartzea langileentzako. Adibidez, ekologismo sozialak proposatzen du, produkzioa gutxituta, lanorduak murriztea ere. Oso faktore inportantea da ere merkatuaren kaosetik urruntzea; kapitalismoak ezartzen du zer produzitu eta horien irabaziak; beraz, ekonomia planifikatu demokratiko baterantz joan behar gara non era kolektibo batean erabakiko dugun zer den oinarrizkoa produzitzea eta zer ez. Era berean, ekonomia lokalizatuagoa izan beharko luke, ez daukalako zentzurik gure elikagaiak Txiletik edo Ukrainatik ekartzea, horrek arriskuak dakartzalako, gaur egun bizi dugun bezala»

maila txikiago batean, produkzioarako edo komertzializazioarako enpresa publikoak sortzeko aukera ere badago hemen.

Ukrainako gerraren harira, prezioak goia jo du. Orain, Mendebaldeak Errusiako gasaren dependentsia utzi gura du. Zeintzuk bide har daitezke hori lortzeko? Epe ertain-luze baterako erabakia da erregai fosilak alde batera uztea, baina horrek eskatzen duena da gizartearen aldaketa oso sakon bat. Halere, egunotan planteatzen ari dena da gasa beste leku batean erostea, eta hori ez da oso errealista. Egia da hemen kontsumitzen den gasaren gehiengoa Aljeriatik datorrela, baina Alemanian, adibidez, uste dut ia erdia dela Errusiarra. Beraz, ez dut uste Europa ahalmenik izango duenik Errusiarekiko dependentsia hori alde batera uzteko epe labur batean.

Azken urteetan asko hitz egin da trantsizio energetikoaren inguruan, baina errealtatea da petrolio- eta gas-kontsumoa ez dela murriztu European; petrolioaren kasuan apur bat bai, baina gasarenean, kontrara: gora joan da. Beraz, egin behar dena da sakoneko aldaketa bat erregai fosilekiko dependentsia kentzeko. Izan ere, gainera, oraingo hau kontu koiuntural bat da, gerra dela eta, baina epe ertainera, erregai fosilen eskasia izango dugu, estrakzioaren pikora heldu garelako jada. Beraz, aurreikuspenek diote datozen urteetan gasa eta petrolio gutxiago egongo dela produkzioarako eta kontsumorako.

Gurean kontsumitzen den gasa Aljeriakoa izan arren, prezioa orokorra da... Bai, hor ulertu behar duguna da herrialde batzuek utzi nahi diotela erosteari Errusiari eta, horretarako, beste leku batera jo beharko dute, adibidez, Aljeriara. Hala, hara joango dira eskaintza hobeto batekin, eta arazoak egongo dira. Gainera, Aljeriatik iberiar penintsulara datozen bi gasoduktuetakoko bat itxita dago, Maroko eta Aljeriako gatazkaren ondorioz. Beraz, bakarra dago, Almeriara doana, eta hori jada gehienezko kapazitatean dago. Ondorioz, gurera datorren gasaren ehuneko handi bat itsasontzien bidez dator orain eta, horrela, oso erraz du Aljeriak gasa beste herrialde batzuei saltzea.

Gasaren gasoduktuak bitartez garraiatzea askoz ere errentagarriagoa eta seguruagoa da alde bientzako, ezta? Hori da, behin hori eraikita dagoela, oso merkea da produktua garraiatzea. Horrek bai ematen du segurtasun handi bat produktua jasotzeko. Itsasontzien bidez garraiatu behar denean, aldiz, oihaneko legeak agintzen du; kontratuak ez



dira horren lotesleak eta askatasun handiagoa dago erosle batek besteak baino gehiago ordaintzeko eta berera eramateko.

Ildo horretan, ez dira gutxi orain esaten dutenak Lemoizko zentral nuklearra edota fracking-aren erabilera berreskuratu behar direla. Zer deritzozu horri? Nuklearraren kasuan, kontutan izan behar dugu uranioarekiko dependentzia izango genukeela, gurean ez dagoelako halakorik. Beraz, uranioa berdin-berdin inportatu beharko genuke Errusiatik edo Nigerretik. Asko hitz egiten da Frantziatz, eta adibide moduan jartzen da subiranotasun energetikoa duelakoan. Baina hori gezur handia da; Frantziak egiten duena da Nigerretik uranioa hartu eta eurenera eraman. Horretarako, armada erabiltzen dute herrialde hartako kontrola ziurtatzeko. Beraz, horren guztiaren atzean inperialismoa dago, horrek ahalbidetzen diolako Frantziari uranioa eurentzat izatea. Beraz, hemen zentral nuklearrak ezartzea proposatzea da beste dependentzia mota batera erortzea; ez litzateke aldaketarik egongo funtsean. Egia da gaur egun uranioa merkeagoa dela, baina lehengai hori murrizten denean zer gertatuko da?

Eta fracking-aren kasuan? Zalantza handiak daude sistema horrekin, ez dakigulako energetikoki errentagarria izango den ala ez. Gainera, arazoa da horren bitartez gasa lortuko litzatekeela epe laburrerako, 5-10 urterako, putzu kopuruaren eta ustiatze-eritmoaren arabera. Halere, horren truke galduko lirateke hainbat akuifero garrantzitsu. Beraz, mezezi du argindarra merkeagoa izatea ur edan-garria galtzearen truke?

Argindarraz gainera, azken asteotan igoera etengabea dabil gasolioaren prezioa. Zelan ezartzen da produktu horren prezioa? Hori merkatu internazionalan ezartzen da, eta hor pisu oso handia dauka espekulazioak eta espektatibak. Uneotan ez da inolako arazorik egon petrolioaren ustiapenean, eta gerrak ez du ezertan eraginik izan behar. Baina aurreikuspenetan dago Errusiaren esportazioak murriztu daitezkeela, eta espektatiba horien aurrean igo dute prezioa. Merkatuaren espekulazio hutsa da.

Energiaren garestitze honek kolokan jarri du gaur egungo gizartearen funtzionamendua: hainbat enpresek funtzionatzeari utzi diote eta garraiolaria grebara joan dira. Kolapsora heldu gara? Ez dut uste oraindik kolapsora heldu garenik, baina bai hasi gara ikusten zein arriskutsua den eta zer-zelako



Txiroak txiroago
«Gasolinaren edo argindararen prezioak igotzen direnean, desberdintasun sozialak are gehiago nabaritzen ditugu. Txiroak dira kolpatuenak. Gizarte justuago batean, kasuotan, aberatsenen irabazietan esku hartu beharko genuke, hala nola enpresa elektrikoaren poltsikoetan»

ezeگونkorra den gure sistemaren oinarria. Ikusi dugu erregaiekin prezioa igo bezain laster hainbat sektore estrategiko kolokan jartzen direla. Izan ere, orain erregaia igo da, eta garraioa ari da sufritzen, baina gasaren igoerarekin argindararen prezioa ere igo da, eta, ondorioz, gure gizartearentzako funtsezkoak diren hainbat fabrikak produzitzeari utzi behar izan diote, ezintasunagatik. Bestalde, askotan aipatzen ez den arren, elikagaien produkzioan ere eragina izaten ari da hori guztia; gaur egun, elikagaien produkzioa oso menpekoa da erregai fosilekiko, alde batetik, garraiolarako eta makineriarako eta, bestetik, gasa oso funtsezkoa delako ongariaren ekoizpenerako. Ondorioz, erregai fosil horien igoerak ere eragina izango du elikagaien erosketetan.

Hori guztia krisi klimatikoari beste begirada bat emateko baliagarria izan daitekeela uste duzu? Bai, azken finean kontziente izan behar gara erregai fosilek ez dutela bakarrik eragiten krisi klimatikoan. Orain, argi eta garbi gelditu da zelako dependentzia dugun horiekiko eta zein inportantea den hortik ateratzea lehenbailehen.

Zer paper betetzen dute energia berriztagarriek honi guztiari aurre egiteko? Eurek izan behar dute gure gizartearen oinarria; halere, arazo bat dago: gaur egun, hainbat energia berriztagarri erregai fosilekiko dependente dira, bai euren produkzioarako baita euren mantenturako ere. Beraz, energia berriztagarriak gure oinarri izan behar dira, baina argi edukita ere energia gutxiagorekin bizi beharko garela. Hartara, fundamentalak da ahalik eta modurik egokienean egitea banaketa justu bat gizartearen, desberdintasun sozialak ekidite aldera. ◀



Apirila-maiatza

Barrika

Apirilak 22, barikua

Ludoteka

17:30 | Liburutegian

Bertaratzeko izena eman beharko da liburut@barrika.eus helbide elektronikoan.

Apirilak 29, barikua

Papiroflexia tailerra

17:30 | Ander Deuna aretoan

Paperagaz forma harrigarriak egiteko tailerra. Izena eman beharko da liburutegian.

Berango

Apirilak 14, eguena

Burdin Hesiaren Oroimen Museora bisita gidatuak

11:30 | Berangoeta kultur etxean

Familientzako bisita gidatuak egingo dituzte eta umeentzako tailerrak egongo dira.

Erandio

Apirilak 29, barikua

II. Gasolino Eguna

Erakusketak, musika eta omenaldia egingo dituzte herriko ikurra biziraun dezan.

Maiatzak 1, domeka

Domeketan antzerki arina:

Deux es Twingo

18:00 | Josu Murueta kultur etxean

Maitasunari eta beste objektu hegalaria ezezagunei buruzko antzezlan.

Maiatzak 1, domeka

Antzerkia: *Biba Voi! Diario Fo eta Franca Rame akorduan*

19:30 | Josu Murueta kultur etxean

Mikel Martinez eta Irati Agirreazkuenaga aktoreek hainbat pertsonaia gorpuztuko dituzte irakurketa dramatizatu honetan.

Getxo

Apirilak 29, barikua

Antzerkia: *Tribiz: baserri galdue*

21:00 | Muxikebarrin

Bizkaiko baserri zaharrenaren historia bere bizilagun batek kontatua.

Apirilak 30, zapatua

Kontzertua: Marco Mezquida *Talisman*

19:30 | Muxikebarrin

Piano-jotzaile eta konpositoreak bere azken lan intimoa aurkeztuko du.

SARRERAK
zozkagai
43.
ORRIALDEAN

Maiatzak 1, domeka

Kontzertua: Masa coral del Ensanche *El Caserio*

19:30 | Muxikebarrin

Madrilgo Zarzuela.

Maiatzak 6, barikua

Antzerkia:

Erresuma/Kingdom/Reino

19:30 | Muxikebarrin

Muxikebarrin bere lehen koprodukzio eszenikoa aurkeztuko du.

Gorliz

Apirilak 23, zapatua

Eskolarteko BTT Topaketa

16:00-18:30

Umeen txirindularitza jaia.

Apirilak 24, domeka

II. Green Series XCO

08:00-15:00

Txirindularitza lasterketa.

Apirilak 24, domeka

Gorlizko Udaberri Azoka

10:00 | Eliz plazan

Apirilak 28, barikua

Berbaldia: *Zer eragin du pandemiak osasun mentalean? Psikofarmakoak erabiltzearen alternatibak*

18:00 | Sertutxena kultur etxean

Osasun Sareak emango duen hitzaldira joateko, turismo bulegoan izena eman beharko da.

Leioa

Apirilak 9 eta 10

Umeentzako zinema: *Ainbo: Amazoniako gerraria*

17:30 | Kultur Leioan

Amazonia salbatzeko heroi baten bidai epikoa.

Apirilak 21etik maiatzak 14ra

Erakusketa: *Dragoiak, izaki fantastikoak*

10:00-20:00 | Kultur Leioan

Mundu osoko kulturetan azaltzen diren izaki harrigarrien erakusketa ikusgarria.

Apirilak 27, eguaztena

Antzerkia: *eRRe*

17:30 | Leioako EHUko campusean

Dikotomien edo binarismoen buruzko obra.

Apirilak 28, eguena

Ipuin kontalaria: *Cataplina*

18:00 | Kultur Leioako umeen liburutegian

Plentzia

Apirilak 17, domeka

Gune historikoak ezagutzeko bisita gidatuak

10:45 | Goñi Portalen

Bisita gidatuak egingo dituzte Plentziaren jatorria eta historia ezagutzeko; izena eman turismo bulegoan.

Apirilak 22, barikua

Liburuaren aurkezpena: *La huella latente del amor*

19:00 | Jai Alai pilotalekuan

Yolanda Fernandez berangotarraren poesia liburuaren aurkezpena.

Apirilak 17, domeka

Umeentzako ilustrazio tailerra

18:30 | Goñi Portalen

Irakurketa eta arte plastikoak lantzeko tailerra egingo dute txikientzako.

Sopela

Apirilak 30, zapatua

Esaera Zaharren Txapelketa

11:30 | Herrian zehar

Izena emateko epea apirilaren 25era arte egongo da zabalik.

Apirilak 30, zapatua

Dantza: *LOF Ladies on Fight*

20:00 | Kurtzio kultur etxean

Dantza eta umorezko ikuskizuna da, emakumezkoen borroka libre formatuan.

Maiatzak 3 eta 4

Bilbao Surf Film Sessions

19:00 | Kurtzio kultur etxean

Bilbao Surf Film Festival-eko film onenen arteko aukeraketa.

Urduliz

Apirilak 11tik maiatzaren 2ra

Barrikako Historiaurreko IV. Jardunaldiak: erakusketa

18:00 | Urdulizko kultur etxean

Tamaina errealeko trikuharri baten erakusketa.

Apirilak 29, barikua

Barrikako Historiaurreko IV. Jardunaldiak: berbaldia

19:00 | Urdulizko kultur etxean

Euskal Kantauri isurialdeko megalitoei buruzko ikerketa berrien inguruko hitzaldia.

Hezkuntza

hiruka

Gehigarri berezia

182. zenbakia

2022ko apirila

Hazi eta hezi Uribe Kostan



ONGI ETORRI

FANFEST



IBAIZABAL ★ LEHEN HEZKUNTZA BERRIA

Elena Herran Izagirre Pedagogian doktorea psikomotrizitate espezialitatean

«Umeei beraien gorputza menperatu

Segurtasuna ematen dien testuinguru batean 0-3 urte bitarteko umeek garapen fisikoa autonomiaz landu dezaten proposatzen du Elena Herranek. Pikler-Lóczy metodologian gehiago sakontzeko beragaz egon gara Leioako campusean.

ANDER ZARRAGA

Leioako campusean dagoen Bilboko Hezkuntza Fakultatean lan egiten du Elena Herran Izagirrek, Haur Hezkuntzako irakasle espezialistak. Psikomotrizitate hezitzaile eta terapeutikoan diplomaduna izateaz gain, Psikologian lizentziaduna da ere, espezialitate klinikoan. Gainera, Pedagogian doktorea da, psikomotrizitate espezialitatean. Horretaz gain, irakaslea izan da eskola publiko zein kontzertatuetan, besteak beste Leioako Altzagan.

Umeen jauziaren inguruko doktoretzate-sia egin zenuen. Zergatik da hain garrantzitsua? Umeak bi eta lau urteren bitartean hasten dira saltoka, eta ikerketa horretarako ez dakit zenbat mila jauzi aztertu genituen, oso emaitza interesgarriekin. Adin horretan, tonu muskularraren garapenak garrantzia handia dauka umeen hazkunde-prozesuan, eta saltoaren bidez bertikaltasuna, oreka eta horrekin lotutako jarrerak lantzen dituzte; testuinguru horretan, jauziaren bitartez ume bakoitzaren garapena aztertu dezakegu. Une horretan ohartu nintzen lehen haurtzarora zer zen, eta, orduetik, horren inguruan aritu naiz lanean.

«Umeak oso kapazak jaiotzen direla frogatu du psikologiak eta pedagogiak; aparteko gaitasuna dute mugitzeko eta erreflexu pila bat dituzte. Horiek ezin daitezke mugatu eta baldintzatu. Umeei egiten utzi behar zaie, dituzten baliabide horiek gure alde erabili behar ditugu»

Zergatik erreparatu behar diogu ume txikien hezkuntzari? 0-3 eta 3-6 adin tartean prozesu psikologiko oso garrantzitsuak izaten dituzte umeek. Autore batek esaten duen legez, «lehen haurtzarora espeziearen prototipoaren adina da»; hau da, urte horietan bizitzan garatuko ditugun beste gaitasunak erne daude. Ume batek hiru urte ditueneko oinez edo berba egiten ikasi ez badu, beranduago ikasi arren, ez ditu besteek edukiko dituzten baliabide berdinak izango. Horregatik, uste dut 0-3 adin tartean lan bikaina eginez gero izugarrizko gizartea sortu daitekeela, baina horrela egin ezean, horrek eragina izango du biharko helduengan.

Pikler-Lóczy metodologian sakondu duzue. Zertan datza? Behin, Emmi Pikler eta Lóczyren umezurtz-etxearen inguruko liburu bat aurkitu nuen eta horrek mundu berri bat zabaldu zidan. Berak esaten du ume txikiak ibiltzen ikasteko ez dutela inolako laguntza fisikorik behar, segurtasuna eta afektua ematen dien testuingurua baizik. Umeei beraien gorputza menperatzen utzi behar zaiela dio. Hasiera batean, bere alabekin frogatu zuen hori, eta gero, kudeatu zuen umezurtztegian ere egin zituen hainbat frogak. Azken finean, metodologia hau umearen autonomia errespetatzean datza; aldarria da pertsona bezala helduen moduan tratatzea umeak, beraien eskubide osoko pertsonak baitira.

Nolakoa izan da hori ikertzeko prozesua? Guk umeen portaera-patroiak xehetasun han-

Alzaga-Erandio Haurreskola

MATRIKULA ZABALIK!
MATRIKULA ABIERTA!



Espiritualitatea Espiritualitatea



Baliabideak Balaibideak

MATRIKULAZIOAREN EPEA: Apirilaren 11tik maiatzaren 9ra (biak barne)

PERIODO DE MATRICULACIÓN: Del 11 de abril al 9 de mayo (ambos incluidos)



Haurreskola

ALTZAGA-ERANDIO HAURRESKOLA
Desanexión, 4 - ERANDIO
Telefona: 944 674 687
Korreo elektronikoa: alzaga.erandio@haurreskola.k.eus
http://www.haurreskola.k.eus



E!
Erandio
GUREA
ALZAGA

«Beratzen utzi behar zaie»



Bilboko Hezkuntza Fakultatean metodologiagaz bat datorren ikasgela sortu dute.

diz aztertu ditugu, baldintza batzuen arabera. Emozioak ezin ditugu behatu, baina keinuak eta erantzunak bai. Gainera, umeak jarraitzea oso zaila denez, guk helduen portaera jarraitzen dugu umeekin duten interakzioak aztertzeko, horrek esaten digulako umeen erantzunak nolakoak diren. Horren bitartez, helduek erabilitako tresnak azter ditzakezu, eta horien eraginkortasuna ikus dezakegu.

Horren ondorioz, umeek garapen pertsonalerako tresnak eta baliabideak bereganatzen dituztela esango zenuke? Horrela hazitako umeen gurasoek esaten digute umeak askoz independenteagoak direla, erabaki gehiago hartzen dituztela. Ez dira hain emozionalak eta ez dute gurasoenganako hainbesteko

MUGITZEN IRAKATSI

«Jendea tematzen da adin horretako umeei algoritmoak, abestiak edo poesia bezalakoak irakasten, baina hori ezinezkoa da; lehenik beraien gorputza menderatzen jakin behar dute. Jesarrita egoten ikasi beharko dute beste ezer baino lehen»

dependentzia. Jendea tematzen da adin horretako umeei algoritmoak, abestiak edo poesia bezalakoak irakasten, baina hori ezinezkoa da; lehenik beraien gorputza menderatzen jakin behar dute. Jesarrita egoten ikasi beharko dute beste ezer baino lehen.

Horregatik azpimarratzen duzu psikomotritzitatearen beharra ume txikien hezkuntzan?

Haur txikien hezkuntzan psikomotritzitatea dena da, mugituz dena ikasi behar dute, eta gela horretarako atonduta egon behar da. Gainera, kalean ere egon behar dira, egon ohi direna baino gehiago; kobazulotik atera behar ditugu. Lehen Hezkuntzaren ereduarekin egindako eskolak ditugu, mahai eta aulki txikiagoekin, baina horrek bakarrik ez du balio hain ume txikiengatik. Inkontzienteki erreplikatzeko ditugun jarrerak dira, guk ere txikitzen hori jaso dugulako.

Gaur egungo hezkuntza sistemagaz ez zaude oso ados beraz?

Haur Hezkuntzaren pertzepzio oso eskasa daukagu gaur egun; oraindik ez dago kontzientziarik gizartean. Orain, haurrarekin ohea partekatzea, sei urtera arte bularra ematea eta horrelakoak eramaten dira, baina hori oso moda kaltegarria da umeentzako. Naturaren kontra ari gara egiten, umeen autonomia mugatzen delako, eta hazkunde-prozesuan eragina duen moratoria bat ematen da. Politika izan arren, umeari hazten utzi behar zaio eta mugak jarri behar dira. Lehen urteetan hori ez bada ikasten horrek eragina dauka. Neurria bilatu behar da.



KONFIANTZAZKOA ETA HURBILA

- 0-16 adin tartea.
- Euskara eta euskal kultura onarri.
- Ingelesa Haur Hezkuntzatik.
- Guraso kooperatiba.
- Herritarra eta eraldatzailea.
- Autobus zerbitzua 2 urtetatik aurrera.
- Bertako janaria, ikastolan sukaldatua.
- Proiektu berritzaileak: Konfiantzaren pedagogia, EKI, KIVa...
- Irakasleen etengabeko prestakuntza eta inplikazioa.

www.betikoikastola.eus

Artatza auzoa, 84, (48940) Leioa

info@betikoikastola.eus

94 464 23 64



Jabier Jiménez Berango Gazte Lab

«Gure helburua gazte-komunit

Ikasketa-guneak eta ekintzaileentzako saretzeak ahalbidetzeko lekuak eskaintzen ditu gaur egun Berango Gazte Lab egitasmoak. Horrez gainera, gazteen interesen arabera tailerrak antolatzen ditu, besteak beste.

IKER RINCON MORENO

Udalerriko gazte eta ekintzaileei laguntzeko asmoz, Berango Gazte Lab proiektua jarri zuen martxan Udalak orain hiru urte. Bide horretan, lekuz leku ibili da egitasmoa eta, orain, urtarrilean, lokal berria estreinatu du Sasiarte kaleko 4 zenbakian. Bertara hurbildu gara eskaintza bertatik bertara ezagutzeko, eta horren nondik norakoak azaldu dizkigu bertako erraztailea den Jabier Jiménezek.

Noiz eta zeri erantzuteko sortu zen Berango Gazte Lab? Lokalak oraindik eginda ez zeuden arren, 2019an sortu zen proiektua. Izan ere, Berangoko Udalak ikusi zuen udalerriko gazteek leku bat behar zutela euren proiektuak profesionalekin garatu ahal izateko, eta baita ikasteko gela bat ere, Berangoetakoa txiki geratzen ari zelako.

Hala, Santa Anako Antzokian ekin genion bideari. Lekua ez zen aproposena, baina ekintzak antolatzen hasi ginen bertan. Hala, lekua eta beharrezkoak zaizkien tresnak eskaintzen hasi ginen gazteei euren proiektuak garatzeko; eurekin harremanetan gaude, zer behar duten jakiteko eta, horren arabera, baliabideak eskaintzeko.



Sasiarte kalea, 4 zenbakia

Santa Ana auzoko Antzokitik bulego berri batera egin du salto Berango Gazte Lab egitasmoak orain gutxi. Hala, urtarriletik hona, Sasiarte kaleko 4 zenbakiko lokalean aurki daiteke gune hau.

Udalerriko gazteei begirako proiektua da, ala zabalagoa da? Berangoztarrak dira publiko xedea, baina eskualdeko inguruko herrietakoak ere etor daitezke; gure helburua komunitatea dinamizatzea da, fokua gazte-riaren gainean jarrita. Halere, ekintza esanguratsuak egin nahi ditugu eta, horretarako, beste eragile edo agente batzuk behar ditugu. Hartara, egiten ditugun ekintzak ez dira gazteentzako esklusiboak; haientzako antolatuta daude, bai, baina zeharkako ekintzak diren heinean, beste agente-mota batzuekin elkarlanean egotea bilatzen dugu. Adibidez, ortu-proiektu bat garatu nahi bada, ekintzailea baseritarrekin harremanetan jarriko dugu, eta horrela ekintzaren arabera.

Agente edo eragile ezberdinak batu nahi dituzue; zeintzuk lortu dituzue orain arte? Denetarik; norbaitek zer edo zer egiten baldin badaki eta hona badator, dakien hori konpartituko du ingurukoekin. Ikasketa-trukaketa bat egotea saiatzen gara.

Zein da Berango Gazte Laben erabiltzailearen profila? Gazteak, baina unibertsitatea amaitu dutenak batez ere. Gazteagoek ikasgelak erabiltzen dituzte, eta nahikoa dute ikastearekin. Baina zerbait sortu nahi dutenean, hona etortzen dira ia zer egin ahal duten jakiteko eta euren ideiak ondo zehazteko. Badakite zer egin nahi duten, baina arazoak dituzte zelan egite horrekin. Gure zereginetako bat da horretan gidatzea, badakigulako zeintzuk zerbitzu dau den eta zelan balia daitezkeen horietaz.

SAN NIKOLAS IKASTOLA

1 URTE

IZEN EMATEA MAIATZAREN 9RA ARTE

SANIKOLAS.EUS/ZATOZ

Areneazpi Kalea, 15 (48991) Getxo, Bizkaia

atea dinamizatzea da»



Jabier Jiménez gizarte hezitzailea da, eta berak du proiektuaren ardura. HODEI TORRES

Ekintzaileak laguntzeko *coworking* gunehorretaz gainera, formakuntzak ere prestatu dituzue hilabeteotarako... Bai, agenda horretan bi motatako saioak topa daitezke: batetik, aisialdi osasuntsuari begirakoak; eta, bestetik, sarea handitzeko ekintzaile edo enpresei begirakoak.

Adibide bat jartzearen; datorren apirilaren 9an bi tailer izango ditugu: bata, triatloiak prestatzen hasteko tailerra; eta bestea, *foam surfing*, non enpresa gazteek euren proiektuak aurkeztuko dituzten eta horiek zelan sortu zituzten azalduko duten.

FAIR SATURDAY

Beste egitasmo askoren artean, Fair Saturday jaialdia berreskuratzeko saiakera egingo du Berango Gazte Labek.

Daborduko lehenengo saioak egin dituzue. Zelakoa izan da parte-hartzea? Oso ona. Bizikletak konpontzeko tailer bat egin genuen eta izen-emate asko izan genituen. Hona etorri zen jendea pozik irten zen. Bestalde, oposizioetarako nortasun-testak prestatzeko tailer bat egin genuen, bertan dauden askok behar hori zutelako, eta, horretarako, psikologo kliniko baten laguntza izan genuen. Gainera, martxoaren 8aren harira, Euskadiko emakume ekintzaile eta enpresari elkartearekin batera «ekintzaileta jasangarria» tailerra antolatu genuen, eta erantzuna oso ona izan zen.

Agenda hori maiatzera bitartekoa da; hortik aurrera zer aurreikusten duzue? Enpresen eta saretze horri buruzko zerbait antolatuko dugu, jendearen beharren arabera. Adibidez, hamaika proiektutan dagoen erabiltzaile bat etorri da orain gutxi eta ikastaro bat egingo dugu berarekin. Berak asko daki gestoria-lanaren inguruan, eta hori oso baliagarria izan daiteke bertan dabilen jende askorentzat. Esan bezala, hartu-emanen oinarritzen da gune hau.

Interesa duenak zer egin beharko luke gune honetan parte hartzeko? Izena ematea, besterik ez; doako zerbitzua da. Baina hona datozenek argi izan behar dute irekiak izan behar direla, ingurukoekin harremanak egiteko prest egon behar dutela. Ideia da elkarrekin batzea eta batak bestearengandik zerbait ikastea, besteak beste. Horixe, eta ideia bat izatea buruan, besterik ez.

ikastolenkartea

«Lasterka, karraderan, Korrika edo hegaz... Gure dozun bezala, Bai, baina euskaraz!»

Guk ere **æk** 22. korrika

ANDER DEVNÀ
IKASTOLA

Hegan egiteko aukerak

Etengabeko aldaketan dagoen hezkuntza zentroa da Politeknika Txorierri, non pertsonak hezten dituzten beraien etorkizun profesionala eraikitzen laguntzeko.

Gaur egungo ikasleen zein enpresen beharrianak ondo ezagutzen ditu Josu Orbe Politeknika Txorierriko zuzendariak; izan ere, urteak daromatza ikasleen eta enpresen arteko bitartekari lanak egiten.

Zure ustez, zein da Politeknika Txorierriren balio gehigarria? Pertsonak hezten ditugula haien etorkizun hurbila eraikitzeko. Horretarako, formakuntza duala bultzatu, enplegurako formakuntza eman eta ikasleentzako zein familientzako aholkularitza bermatzen ditugu, besteak beste. Ikasleek beharrezko tresna eta errekurto guztiak izan ditzaten lan mundura salto egiten dutenean.

Gaur egun, mundua etengabe aldatzen ari da. Honen aurrean nola moldatu zarete? Etengabeko aldaketa hauei aurrea hartzeko lan egiten dugu egunero, datozen beharrian berrietara egokitzeko. Horretarako, 500 enpresa baino gehiagorekin lan egiten dugu, bai eskualde mailan eta baita nazioarteko proiektuetan ere. Ditugun enpresa aliantzek eta proiektu berritzaileek laneratzea eta ekimena errazten dute, garapen pertsonala eta profesionala bultzatzen duten metodologia berrien bidez.



www.txorierri.net

ATE IREKIAK

Lanbide Heziketako ate irekiak maiatzaren 3an, 4an eta 5ean izango dira bertan.

Etengabeko aldaketei aurrea hartzeak, zein onura ekarri dizue? Ikasleen etorkizun profesionala eraikitzen laguntzeko esperientzia eta bermea izatea ekarri digu. Gainera, Politeknika Txorierriko eskaintzaren artean Batxilergo zientifikoa eta Lanbide Heziketako hainbat arlo aurkitu ditzakegu, hala nola robotika, transformazio digitala, marketina, ingurumena, diseinu eta produkzio mekanikoa. Horrez gain, hainbat berrikuntza-proiektutan parte hartzen dugu eta horiek garatu ere bai, ikasleen gaitasuna hobetzeko helburuarekin.

Politeknika Txorierriin garatzen dituzuen proiektuak ezagutu gura izanez gero, noiz dituzue hurrengo ate irekiak? Lanbide Heziketako ate irekiak maiatzaren 3an, 4an eta 5ean ospatuko ditugu. Etorri eta ezagutu ezazu zentro aitzindari eta bakarra.

POLITEKNIKA IKASTEGIA
TXORIERRI
8.0000

HEGAN EGITEKO AUKERAK

BATXILERGOA ETA LANBIDE HEZIKETA

Eman izena! www.txorierri.net

ETELU

Esperientziaren bermea

Fadura LHII ikastetxeak 40 urte baino gehiago daroatza kalitatezko zerbitzua eskaintzen, eta eskualdean enpresen eta inguruaren erreferentia izatea lortu du. Gazteak gizatasunez eta arlo teknikoan prestatzea da helburua, jendartearen integratu daitezkeen bai lan-mundura bai beste ikasketetara sartzeagaz batera. 1980tik daroa ikastetxeak eskaintza zabala ematen lanbide-heziketan: goi- eta erdi-mailako heziketa-zikloak, eskaintza partziala, heziketa duala, enplegurako formakuntza, zereginen gela... Algortako Fadura inguruan dago, garraio-zerbitzu publikoetatik hur. Irakas-baliabide eta instalazioei dagokienez, ikastetxeak kalitatezko ekipamendua eskaintzen du, eta ikasleen eta enpresen asebetetzea urtez urte handitzen doa, horien beharrazanez erantzunez.

Balioetan hezteka da ikastetxe horrek duen Hezkuntza Proiektuaren oinarria: etengabeko harrera lagunkoiaren, beti hizketa-giroaren, ulermenaren eta berdintasunaren alde agertzen da Fadura LHII. Ugaritasuna ikasteko aukeratzat hartuta, eta dibertsitateari eskainitako arreta da pertsonetikiko eta komunitatearekiko duen konpromisoa.

Modu berean, ikasleen prestakuntza-mailetatik, aukeran duen formakuntza-eskaintza zabalagatik, bertoko laneko segurtasunagatik eta ingurunearekiko konpromisoagatik, kalitate eta etengabeko hobekuntzarako kudeaketagatik eta Uribe Kosta eskualdean enpresa eta inguruaren erreferentia izateagatik gura du jendeak Fadura ikastetxea ezagutzea. Horretarako aukera egongo da maiatzaren 2tik 11ra arteko ate irekien jardunaldian.



Hezkuntza-eskaintza

Goi-mailako Heziketa-zikloak

- Automatizazioko eta robotika industriala
- Fabrikazio mekanikorako produkzioaren programazioa
- Haur-hezkuntza
- Osasun-dokumentazioa eta administrazioa
- Gizarte eta kirol animazioko eta irakaskuntza

Erdi-mailako Heziketa-zikloak

- Telekomunikazioa-instalazioak
- Mekanizazioa
- Karrozeria
- Ibilgailu automobilen elektromekanika
- Erizaintzako laguntzailea
- Osasun-larrialdiak

Eskaintza partziala osasun-larrialdietan

Zereginen gela

Lanean zein langabezia daudenezat «Lanbide» ikastaroak

BirtLH: Lanbide heziketa birtuala osasun-larrialdietan

Lan-kompetentziak egiaztatzeko prozedurak

Informazio gehiago:

- Online: www.fadura.eus
- Idazkaritzan: 08:30etik 13:30era egunero, eta 15:30etik 17:30era astelehen, martitzen eta eguenetan.

Ate irekiak:

- Maiatzaren 2tik 11ra
- Aldez aurretik izena eman beharra dago.

Fadura
Ikastetxea
Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratua
Bizkerre z/g. 48991 - Getxo

JARDUNALDI IREKIAK:
Maiatzaren 2tik
maiatzaren 11ra (biak barne)

Apuntatzeko:
www.fadura.eus/ Ate irekien jardunaldiak

Zure etorkizuna hurbil

Berrikuntza, Aniztasuna eta Kalitatea
Berdintasuna eta Ingurugiro-iraunkortasun balioetan hezitzaileak
Praktikak atzerrian, Irakaskete metodologia berriak, IKT heldutasuna
Tel. 944 069 000 - www.fadura.eus - fadura@fadura.eus

Matrikulazioa 2022-2023

Umeak Uribe Kostako haur eskoletan matrikulatzeko hainbat aukera



Errespetuan oinarritutako pedagogia alternatiboak
EREDU ELEBIDUNA (euskara / Ingelesa) 0-3 URTE BITARTEKO UMEENTZAT



**HAUR ESKOLA
POTTOKI**

ORDUTEGIA: 7.30-18.30

Mendieta bidea, 1 GORLIZ (Plentziako portutik hurbil)
• 946 770 994 • pottokietxe@gmail.com • www.pottokies



BERANGOKO HAURRESKOLA



MATRIKULAZIO EPEA ZABALIK! Apirilaren 11tik maiatzaren 9ra
¡PERIODO DE MATRICULACIÓN ABIERTO! Del 11 de abril al 9 de mayo

☎ 946 68 27 86 📍 Torrekolanda Bidea, 2, 48640 Berango, Bizkaia

MATRIKULAZIO EPEA ZABALIK! ¡PERIODO DE MATRICULACIÓN ABIERTO!



HAURRESKOLAK

URDULIZKO HAURRESKOLA



Apirilaren 11tik maiatzaren 9ra
Del 11 de abril al 9 de mayo

📍 Arteta, 2, 48610, Urduliz, Bizkaia ☎ 944 65 92 80

GORLIZKO HAURRESKOLA

2021/2022



IZENA EMATEKO EPEA ZABALIK!
¡ABIERTO EL PLAZO DE INSCRIPCIÓN!

Apirilaren 11tik maiatzaren 9ra
Del 11 de abril al 9 de mayo

Edozein galdera edo zalantzarako deitu telefonoz
Para cualquier duda o consulta llamar por teléfono



haurreskolak.eus

☎ 946 773 765

📍 Urtiene estrada, 5 - GORLIZ

Osasun Publikoa aurrera! Algortako herri-plataforma

«Gure osasun sistema publikoak gabezia asko ditu, estrukturalak direnak»

IKER RINCON MORENO ▶

Pandemiak gehien kolpatu duen Osakidetzako sektoreetako bat izan da Lehen Mailako Arreta, eta oraindino ez da lehengoratu. Hala ere, Algortako Osasun Publikoa aurrera! herri-plataformako kideek nabarmendu dutenez, zerbitzu hori aurretik ere utzita egon da. Hori horrela, hila-beteotan osasun langileek egindako aldarrikapenak bat egin eta, herritar gisa, kalitatezko osasun zerbitzu publiko eta unibertsalaren alde borrokatzeari ekin diote, «batez ere Lehen Mailako Arretaren indartzean fokua jarrita».

Zein da gaur egun EAEko osasun publikoak bizi duen egoera? Utzikeria da nabarmendu beharko genukeena. Pandemiaren aurretik, jada, osasun sistema publikorako inbertsioa zeharo eskasa zen, urtez urte baliabideak murrizten joan dira, eta pandemiaren ostean, are egoera kaxkarragoan aurkitzen gara. Pandemiak osasun sistema publikoa indartzeko balio behar zuen, baina, horren ordez, atzerapausoak baino ez dira eman, epe laburreko erabakiak hartu direlako, interes pribatuen alde eginez.

Horri aurre egiteko plataforma sortu duzue Algortan. Zein da zehazki zuen zeregina? Pandemiaren aitzakiapean gure eskubideak murrizten eta sistema publikorako irisgarritasuna oztopatzen joan dira. Hori horrela, osasun langileak greba aldi ezberdinak egiten ari diren era berean, uste dugu herritarrok, erabiltzaile gisa, euren aldarrikapenak babestu eta, bereziki, guk soilik exijitu ditzakegunak defendatzeko beharra eta erantzukizuna dugula. Hori dela eta sortu genuen plataforma herritar hau, gure herrikideak egoeraz jabetu eta horren aurrean mobilizatzeko zereginarekin.

Askotan entzun izan dugu EAEko osasun publikoa «munduko onenetarikoa» dela. Hala da? Hala saldu izan zaigu, baina egia esan, horrela izatetik oso urrun gaude. Osakidetzako langileei galdetzea besterik ez dago, baina gutako bakoitzak ere norbere azalean pairatu izan ditu gure osasun sistemaren hutsuneak eta arrakalak. Izan bada ere, gure osasun sistema publikoak gabezia asko ditu, koiunturalak baino gehiago estrukturalak direnak.



Herri-plataformako kideetako batzuk, bilera baten aurretik Villamonteko kultur etxean.

Aldarrikapenak

«18 puntuko aldarrikapen taula mamitsu bat osatu dugu, eta nagusiki bi ardatz markatu ditugu: privatizazioekin amaitu eta Osakidetzaren desegitea geldiarazteko urgutzia; eta kalitatezko osasun zerbitzu publiko eta unibertsalaren alde egiteko beharra»



QR kodea eskaneatuz gero, elkarrizketa osoa irakur dezakezu.

Estrategiarik ez izatearen ondorio zuzena da hori, gizarteak dituen osasun beharrei baino interes puntualei erantzuten zaiolako. Jendarte osasuntsu bat nahi baldin badugu, osasun sistemak osasun baldintzatzaileei erreparatu eta eragin beharko die, alegia. Hari beretik, kalitatezko osasun sistema publikoaren ezaugarrietako bat ekitatea izanik, berau bermatzea ezinezkoa izango da publiko-pribatu duplizitatearekin moztu ezean.

Osasun publiko, unibertsal eta kalitatezkoa aldarrikatzen duzue. Zer behar da hori lortzeko? Neurri asko hartu beharko lirateke eta beste asko alboratu. Hasteko, publikoa izateko 15/97 legea bertan behera utzi beharko litzateke, zeinak osasun zerbitzuen hornitzaile desberdinak egon daitezkeela zehazten duen, edozein eremu pribaturi osasungintzan negozioa egitea ahalbidetuz. Unibertsala izan dadin 16/2012 Errege dekretua bertan behera gelditu beharko litzateke, zeinak osasun zerbitzu publikoak kostu individual gabe jasotzea murriztu egiten duen eta egunero errolda exijitzen duen. Azken horrek, aldagatzen bat edo beste gorabehera, bere horretan jarraitzen du. ◀

Joseba Zarraga *In Bizkaia Sanctam Mariam de Barrica* liburua

«Abizen eta izenen jatorrizko idazkera gogoratu behar da betirako ez galtzeko»

ANDER ZARRAGA ▶

Barrikako biztanleen historia laburbiltzen duen liburua argitaratu berri du Joseba Zarragak. Hainbat urtez ikertzen eta informazio biltzen aritu ondoren, barrikoztarrak herriaren eta bere biztanleen historia biltzen duen liburuak argia ikusi du, Barrikaren lehen aipamenetik hasita. Zarragak kontatzen du historiarekiko duen zaletasuna bere aitak eta aititek kontatzen zizkioten itsasoko eta Ameriketako istorioetatik datorrela, eta, horregaz, inguruko baserrien armarren esanahia eta familien jatorria ezagutzeko interesa piztu zitzaiola.

Nolakoa izan da liburua egiteko ikerketa-prozesua? Aldundiko artxibo historikoan aurkitu ditudan dokumentuak ikertzeaz gain, 1607an hasten den *Libro de Fabrica* delakoa ere ikertu dut, Barrikako biztanleen lehen datu zehatzakaz. Horregaz eta jaiotzak eta heriotzak biltzen dituen liburuagaz Barrikako puzzlea osatzen joan naiz. Datu horiek ez daude interneten, eta banan-banan ikertu behar dira. Baserrien eta auzoen izenak eta abizenak aldatuz joan dira urteakaz, baina horien jatorrizko forma mantendu beharko litzateke, bestela esanahia galtzen doaz. Horren adibide argia da Muriola, izan ere, bere jatorrizko izena Maguriolaga da: magurio asko dagoen lekua, hain zuzen.

Liburuan Barrikako genealogiaren azterketa sakona egiten duzu; zer azaltzen da horretan? Zearreta bezalako abizenak beste herri batzuetan ere aurkitu daitezke, baina Barrikan bakarrik daudenak ditugu, adibidez: Floriategi, Zandelis, Musaurieta, Aranbaltza, Barrika edo Garramuñu. Ohitura daukat Ameriketara noanean telefono-gida hartzeko eta horrelako zenbat abizen dauden begiratzeko, eta horiekaz harremanetan jartzeko. Horri esker, konturatu naiz atzerrian dauden euskaldun gehienak ondo kokatuta daudela.

Baserrri eta familiez gain, Barrikako historiaren parte izan diren eraikinen ibilbidea ere egin duzu, ezta? Bai; adibidez, Barrikan zegoen gazteluaren berri ematen dut. Horretaz gain, Barrikako taberna-etxeen inguruan ere egiten dut berba eta nola bide berriak egi-



Liburua 17 urteko ikerketa-lanaren emaitza da, eta Zarragak berak autoeditatu du.

Barrikoztarrak Filipinetan

«Barrika abizena zuen filipinar jatorriko estatubatuar batzuk egon ziren nire etxean. Beraien arbasoak ikertu nituen, eta aurkitu nuen abandonatutako ume batetik datorrela familia hori.

Liburuan familia horren historia ere kontatzen dut oso bitxia delako»

Hainbat kontu

«Liburuan XV., XVI. eta XVII. mendeko orube zaharrak, gerra karlistak edota Elorduy zaharren etxearen jatorria kontatzeaz gain, Barrikak eman dituen pertsonaia ezagun asko ere bildu ditut, asko izan direlako»

teko zergak batzen zituzten horietan. Horretaz gain, Barrikan lau portu ere zeuden, San Telmokoa, Meñakozeakoa, Muriola edo Maguriolagakoa eta liburuan azaltzen duen beste bat, inork ez duena asmatuko non zegoen. Horretaz gain, inork ez daki Paraguain bizi zen barrikoztar batek dirua eman zuela udaletxea eta aldameneko eskola eraikitzeko.

Barrikak beti izan du itsasoagaz lotura es-tua... Bai, zerrenda luze bat daukat kapitainena eta patroiena, Plentziako kofradiakoak, eta bertan hainbat izen azaltzen dira. Nire familian ere, industria egon aurretik, asko marinelak izan ziren, eta itsasoan zebilen jendeak diru asko egiten zuen.

Nondik hartu duzu liburuaren izenburua?

Barrikari erreferentzia egiten dion lehen izkribua da, 1052. urtean Gartzia Santxitz Nafarroako erregearena. Garai hartan aipatu zuen lehen aldiz Barrika; *Bizkaia* gaur egun idazten den moduan izendatuz, gainera, oso bitxia dena. Horretan esaten du Santa Mariako Barrikak hamarrenak Errioxako Naiarari ordaindu behar dizkiola. Horretaz gain, azalean elizako XII. mendeko erromanikoko leihoa azaltzen da, eta atzealdean bataiarria. Ni ez naiz katolikoa, baina horren balio arkitektonikoaz gain, balio sentimental handia ere badu; pentsa bederatzi mendetan zenbat barrikoztar bataiatu dituzten bertan. ◀

Feline

«The Stranglers-ek badu *Feline* izeneko disko bat»

TESTUA: ASIER BARRUETABEÑA RIVALLO
ARGAZKIA: FELINE ▶

Orratza diskoaren gainean jarri eta gurasoen etxeko egurrezko egongela zaharrera bueltatu naiz bat-batean. 70-80ko hamarkadetako doinu berezi eta landuek, ahots joko eta sintetizadoreekin, garai bateko igande arratsaldeetara eraman naute, non gaua heldu arte mahai-jolasetan ematen genuen. Argi dago ikustekoa dela Gernikako Iparragirre musika talde faktoriak eman duena, eta oraindik emateko daukana ere. Ondo heldu zaitez, Feline dator eta!

Nortzuk zarete Feline? Azaldu egiguzue labur zeuen historia... Feline 2020ko lehen hiruhilabetekoan sortu genuen Iñaki Bainiren maketak Rubenek entzun eta lehenengo geldialdian egiten hasi zirenean. Ainhoa ere, aspaldiko laguna izanik, azkar batu zen proiektura baxu-jole moduan. Hasiera batean, ordenagailu bidezko samplerrak erabiltzen genituen arren, abestien erritmoa eramateko konturatu ginen bateria-jole batek gehiago lagunduko ligukeela, eta orduantxe sartu zen Eneko. Laukote moduan egin genituen lehenengo entsegu horietan gaur egun entzun daitekeenetik oso hurbil geunden jada.

Sare sozialetan denboratxo bat aktibo egon zareten arren, orain dela gutxi aurkeztu duzue lehenengo lana. Zelakoa izan da prozesu guztia? 2020a urte gorabeheratsua izan zen guztiontzat soberan ezagutzen ditugun arrazoiengatik. Felineren dinamikan ere guztiz baldintzatuta ginen. Ilusio eta talde berri bat eratzen ari ginen, eta zailtasunak genituen denetarako: entsatzeko, lehen kontzertuak lotzeko eta, batez ere, gure burua ezagutzera emateko. Kantak bagenituen; kontzerturik ez. Eta ez zirudien gauzak aldatu behar zirenik. Pausoak ematea garrantzitsua da talde batentzat, eta diskoa grabatzea erabaki genuen, ia kontzerturik jo gabe. Hori 2021eko maiatzean izan zen eta, ordutik hona, zuzenekoak ugaritu dira eta badirudi zirkuitua martxan dela berriz. Orain diskoa zuzenean aurkeztea da gure lehentasuna.



Feline

Diskoa kaleratuta, zuzenekoetan indarra jartzeko unea iritsi da?

Horretan gabilta, bai. Zerrendan abesti berriak txertatu ditugu gainera. Udaberri eta udan Euskal Herria zeharkatzea itzela litzateke; jende eta leku berriak ezagutzuz, egiten dugun musikarekin ondo pasatzea da gure helburua. Zer gehiago eska dezake musika talde bat osatzen duen lagun-talde batek?

Oso berezia da sortu duzuen diskoa, normalean entzutera ohituta ez gaudena. Zeintzuk izan dira influentziak eta zelan heldu zarete estilo horretara? 70ko eta 80ko hamarkadetan Ameriketako Estatu Batuetan, Erresuma Batuan edota espainiar Estatuan egiten zen musika asko gustatzen zaigu. Punk eta rock talde askok teklatu eta soinu elektronikoetarako joera hartu zuten. Beti gustatu izan zaio jendeari dantza egitea. Garaian garaiko baliabideak erabiliz, lehenengo sampler, sintetizadore eta bateria elektronikoak dantzalekuak sutan jartzen zituzten. Influentziak, beraz, horiek izan daitezke, baina ez dugu uste garai haietako *new wave* edo *glam rock* estiloek guztiz definitzen gaituztenik.

Zergatik jarri diozue Feline izena taldeari? Bada, The Stranglers taldeak badu oso gustuko dugun *Feline* izeneko disko bat. Beraien ibilbidean entzun beharreko diskoa da; ausarta eta elegantea. Garai hartan punka egiten zuen talde batek *Feline* bezalako disko bat ateratzek ziur zeresana eman zuela kalean, eta, horrez gainera, izenaren beraren ahoskera ere asko gustatzen zitzaigun: eroso da, eta deigarria ere bai agian, denek galdetzen baitigute izenaren nondik norakoaren inguruan, kar kar kar. ◀

Irene Pera Getxoko Promesa Onenaren saria eta igerilaria

«Igeriketa nire bizitzaren parte garrantzitsua da»

Txikitan gurasoek behartuta igerian hasi bazen ere, gaur egun izugarri maite du Irene Perak igerilekura joan eta bertan igerian ibiltzea. Etorkizun oparoa du kirol horretan, eta horren aitortza jaso du orain gutxi.

IKER RINCON MORENO ►

Getxo Sasoi Sasoiari kirol galan, Promesa Onenaren saria eman zioten Getxo Igeriketa taldeko Irene Pera igerilariari, 2021eko Espainiako Txapelketako 200 metro libretan eta Udako Espainiako Txapelketako 100 metrotan lortutako brontzezko bi dominengatik. 15 urteko kirolari gazteak aitortu digunez, ez zuen aitortza espero, baina lausengatua sentitu zen bera aukeratu zutelako, «egindako ahaleginaren errekonozimendua da hori».

Zelakoak dira igeriketa-proben prestaketa-lanak? Lehiaketa osoa prestatzen dugu, baina askotariko probak daude. Berbarako, Cadizen egindako azkenengo txapelketan bizkarreko 100 metro, estiloko 400 metro, 200 metro libre eta erreleboko bizkarreko 100 metro egin nituen. Eta noski, horietako bakoitzak prestaketa-mota bana behar du, beraz, denetarik entrenatu behar dugu; egunero gauza bat egin dugun dena egin ahal izateko.

Horietatik guztietatik, zein da gehien gustuko duzuna? Bizkarreko 100 metrokoa, hobekien daramadana da.

Eta gutxien? Okerren ematen zaidan estiloa braza eta tximeleta dira, ez naiz oso ondo moldatzen horietan.

Noiz eta zergatik hasi zinen igeriketan? Nire gurasoek behartuta; eskolan nengoela, igeriketa-ikastaroetan trebea nintzela ikusi eta Fadurara ekarri ninduten. Hasiera batean ez nuen nahi, negar egiten nuen ez nuelako entrenatu nahi, baina, azkenean, asko gustatzen zait mundu hau.



Algortako Fadura kiroldegian entrenatzen du ia egunero Irene Perak. HODEI TORRES

Hurrengo lehiaketak
Udako Espainiako Txapelketara begira dago orain Irene Pera; gainera, Bizkaiko Txapelketan marka onak lortu nahi ditu, baita Gijonekoan ere.

Etorkizunera begira, zeintzuk erronka dituzu buruan? Europako Txapelketara joatea; horretarako, baina, markak egin behar ditut eta Espainiako Txapelketa bezalako lehiaketara joan.

Zenbatean behin entrenatzen duzu astean? Sei egun astean, eta bizpahiru alditan ere goizez etortzen naiz igerilekura.

Entrenamenduak eta ikasketak uztartzea erraza egiten zaizu? DBH 3. mailan nago, eta ez zait Batxilergoko jendea adina kostatzen.

Zer da zuretzako igeriketa? Nire bizitzaren parte da. Errutina bat da: arratsalde guztietan entrenatzen dut, ia-ia beti. Egia da nire bizitza soziala murriztuta dagoela igeriketaren eraginez, baina ez dut alde batean utzi nahi, izugarri gustatzen zaidalako.

Non ikusten duzu zure burua urte batzuk barru? Ez dakit, ez dut ezer buruan; momentuz Fadurako taldean jarraituko dut. ◀

Irene Gana Barrika Piraguismo Taldeko palista

«Adin on batean nago eta hobetzen saiatu nahi dut»

Aparteko urtea egin ondoren, Irene Gana Barrika Piraguismo Taldeko palista gazteak emaitza onak bilatzen jarraitu gura du hasi berri den denboraldi honetan, bai itsasoan eta baita ur lasaietan ere.

ANDER ZARRAGA ►

Iazkoa aireratzeko urtea izan zen Irene Gana palistarentzako. Erizaintza ikasketak eta piraguismoko entrenamenduak tartekatzen dituen 22 urteko Algortako gazteak oso emaitza onak lortu zituen 23 urtez azpikoen goi mailako lehiaketetan: alde batetik, surf-eskiko mundialean hirugarren geratu zen eta Europako Txapelketan bigarren sailkatu; horretaz gain, ur lasaietako maratoi modalitateko Mundialean ere egon zen, eta bederatzigarren postua eskuratu zuen horretan. Tamalez, aurtan, Europako Txapelketa ez da jokatu, Errusian egin behar zutelako eta Espainiako selekzioak horretan ez parte hartzea erabaki zuelako.

Gana ur lasaietako kayakean aritzen da, maratoi modalitatean, 22,6 kilometroko lasterketetan, baina 2020an surf-eskian ere hasi zela dio: «Nik betidanik ur lasaietako piragua egin dut Plentziako itsasadarrean, baina, gero, itsasoan ere probatzen hasi nintzen, eta asko gustatu zitzaidan». Surf-eskian, hondartza batetik bestera doazen 15 eta 25 kilometroko arteko ibilbideak egiten dituzte, eta Ganak oso emaitza onak lortu ditu lehia horietan hasieratik; lehen urtean nazioarteko frogetan aritzeko sailkatu zen.

TXIKITATIK ARRAUNEAN. Zortzi urte zituela probatu zuen piragua lehen aldiz, eta, orduetik, Barrika Piraguismo Taldean sartuta ibili da. Dioenez, bere aitagatik murgildu zen piraguaren munduan; uda batean probatu zuten eta berari asko gustatu zitzaion. Orduan, gazteegia zenez, ezin izan zen Barrikako taldera sartu, eta, hasiera batean, lagunakaz egoteko denbora-pasa bezala aritu zen. Urteakaz taldea osatu zuten, eta lehiaketetan parte har-



Aurtan ere, ur lasaietako eta surf-eskiko 23 urtez azpikoetan buruz buru arituko da.

Piraguismo profesionalen jarraitu gura zenuke?

«Gustatuko litzaidake piraguismotik bizitzea, baina oso zaila, edo ezinezkoa, da. Horregatik, nire lehentasuna erizaintza ikastea da, baina ahal dudan guztia egiten jarraituko dut piraguan»

Nolakoa da Barrika Piragua Taldea?

«Barrikako taldea txikia izan arren, Euskadiko Txapelketan nahiko ondo moldatu ginen, hirugarren postua lortu bainuenen; oso aurkari indartsuak izan ditugu aurrean. Oro har, esango nuke giroa ere oso ona dela adin guztietako kideen artean»

tzen hasi ziren: «Niri asko gustatu zitzaidan, eta kategorietan sartzen hasi nintzen; hark Espainiako Txapelketara eraman ninduen, eta horrek are gehiago lotu ninduen kirolera». Orduetik, urtero lehiaketetan egon da, eta urtez urte emaitzak eta teknika hobetzen joan dela aitortzen du.

Berarentzako aurrerapauso garrantzitsua izan zen 2015ean Rafael Quevedo Europako txapeldun eta Munduko txapeldunordeagaz entrenatzen hasi zenean. «Berarekin asko hobetu dut, eta falta zitzaidan urrats hori ematea lortu dut. Rafari esker gehiago eta hobeto entrenatzen hasi nintzen eta, iaz, 2021ean, lan horren emaitzak azaleratzen hasi ziren». Une honetan, ur lasaietako kayaka eta surf-eskia egiten ari da: «Oso ondo osatzen dira eta bata egiteak besterako ere balio du».

Iazko emaitza onen ostean, aurtan ere emaitza onak eskuratzeko lehiazko prest dago Gana; izan ere, martxoko lehen lehiaketan, Espainiako 5.000 metroko txapelketan, zazpigarren postua eskuratu zuen nahiz eta lasterketa mota hori bere espezialitatea ez izan: «Pentsa, hor distantzia guztietako kirolariak egon gara, beraz, lortutako emaitzarekin oso pozik nago». ◀

Leioa Mendi Taldea

IRENE LARRABEITI LMT-aren batzordekidea



Leioa Mendi Taldearen 30. urteurren honetan sartu naiz klub honetako zuzendaritza batzordean.

Aurretik, zortzi urtez egon naiz federatuta mendi talde honetan.

Hasiera batean, boulderrean bakarrik egoten nintzen eskaladaren mundua pixkanaka ezagutzen. Denbora aurrera joan ahala, klubeko beste lagun batzuk ezagutu nituen eta horiekin batera mendia eta eskalada ezagutu nituen, Sakonetatik kanpo. Gutxi axola du lagun bakoitzaren adinak edo mailak, egun horretan bertan ezagutu izana edo hainbat urtez lagun izatea, denok elkarren artean gozatzen baitugu.

Giro hori ikusita, berehala konturatu nintzen mendia nire bizitzaren zatitxo bat bihurtu zela. Konturatu nintzen LMT-ak hainbat baliabide zituela nire interesa are gehiago pizteko: mendi irteerak, eskalada topaketak, materialaren alokairua, liburuak, solasaldiak...

Sartu berria naiz batzordean, baina lehenengo egunetik ikusi nuen ni baino ibilbide luzeagoak diren ki-deak hasierako grina eta gogoia mantentzen dutela. Espero dut klubaren izaerak horrela jarraitzea urte askoan, orain gaudenekin eta etorriko direnekin.

Eskerrik asko LMT. Jarraitu pertsona gehiagori mendia maitatzeko aukera ematen.

Kirola babesleku

JON LOPEZ SAEZ Prestatzailea



Pandemiak mundua hankaz gora jarri zuen: itxialdia, krisia, ezinegona, noraeza...

Pandemiatik hobeto irtengo ginen uste baikorra berehala ezabatu zitzaigun errealitate gordinarekin topo egin genuenean: ez gara hobeak. Aldatu, ordea, bai; izugarri aldatu gara.

Kirola ere asko aldatu da. Ia bi urte luzeko etenaldi gogorraren ostean –gogoratu gizartea normaltasunean sartzen ari zen bitartean kirolak, eta batez ere eskola-kirolak, neurri murriztaile askorekin jarraitu zuela– kirola eta kirolariak izugarri aldatu dira.

Erabateko aldaketa horretan, kirolari gazteenengan jarri nahi dut lupa. Pandemiak denongan izan du eragina, baina susmoa dut psikologikoki nerabe eta gazteak jo dituela batik bat. Bereziki gorabeheratsua den adin batean egonda, etenaldiak izugarri desorekatu ditu gure gazteak. «Lotuta» egon ondoren, orain bizitza beste abiadura batean aprobetxatu behar/nahi dute, eta sakelakoan agenda bete-betea daramate gehienek: ikasketak, aisialdia, kirola...

Eta agenda bete horretan kirolaren rola aldatu delakoan nago. Mundu zoro honetan kirola babesleku bihurtu behar dugu. Gazte eta nerabeak ahalik eta goxoen artatu behar ditugu. Merezi dute.

Horoskopoa



Ura
(Abenduak 21-Urtarrilak 19)

Korrikako ajea pasata, orain hanketako minari aurre egin beharko diozu; kirol faltan zaudenaren seinale ote?



Otsoa
(Urtarrilak 20-Otsailak 18)

Lo gutxi egin duzu Korrikaren festaz gozatzeko; goizean goiz jaiki eta eskualdea alderik alde gurutzatu duzu. Lasai, opor egunak dituzu-eta.



Adarra
(Otsailak 19-Martxoak 20)

Korrika amaituta dagoela, guztioi komeni zaigu lantzean behin kirol apur bat egitea, baina orain zuri bereziki. Irten kalera eta mugitu zaiten.



Aitzurra
(Martxoak 21-Apirilak 19)

Aizu, lagun! Bi urtean behin korrika egin eta *runner*-a zarelakoan zaude? Tira, has zaiten pres-tatzen, arnasestuka zaude oraindino-eta.



Hostoa
(Apirilak 20-Maiatzak 19)

Hiru urtez zain egon zara Korrikaren lekukoa eroateko; azkenengo unean covidak harrapatu zaitu eta oraingoan ere ezin! Ea hurrengoan!



Eguzkia
(Maiatzak 20-Ekainak 18)

Beti zabilta dieta egin behar duzun kontuagaz gora eta behera, baina ez duzu egiten. Ez da erraza ohiturak aldatzea, baina lortuko duzu.



Garia
(Ekainak 19-Uztailak 18)

Aste Santuko oporrak ate-joka dituzu; oraingoan bai, atzerrira joateko aukera izango duzu. Nora badakizu?



Lastoa
(Uztailak 19-Abuztuak 17)

Amurrion eta Donostian ikusi zaituzte petoa jantzita; noiz hasi eta noiz amaitu duzu Korrika? Ala kotxez ibili zara uneoro?



Iratzea
(Abuztuak 18-Irailak 16)

Daborduko udako oporrak prestatzen? Ez da goizegi? Beno, agian eskaintza merkeagoak aurkitzeko aukera ere izango duzu, beraz, animo!



Meta
(Irailak 17-Urriak 16)

Elurra mara-mara, euria barra-barra eta eguzkia aldiro; lau urtaroak eta zazpi herrialdeak gurutzatu dituzu korrika. Bejondeizula!



Hazia
(Urriak 17-Azaroak 15)

Urte osoa daramazu lekukoaren atzetik ibiltzeko irrikan; baina zuzenekoak jarraituta, azkenean, lo gelditu zara gurera heldutakoan...



Negua
(Azaroak 16-Abenduak 20)

Hotz handia dago egunotan, eta hobe duzu gordeta zeneukan txamarra hori berreskuratzen baduzu.



Hordago!

Ba al dakizu **musean**? Edo paso egiten duzu? Muslariak ere badaiki paso egiten, joko onik ez duenean, edo estrategiatatik, kartak erakutsi gura ez dituenen. Karta joko bizia da musa, baina baita bizi joko ere. Izan ere, hobeto edo txar-toago, denok egiten dugu musean bizitzaren partidari.

Musa karta joko Euskal Herrian sortu ei zen. Eta jokatu, Gasteizen sortutako karta sortarekin egin ohi da, gainera. Urreak, kopak, ezpatak eta bastoiak. Horra hor **sorta**ko berrogei kartak antolatzen lau **sailak**. Izendapen era berezia daukate kartek musean: **bateko** urrea, biko kopa, hiruko ezpata, lau kosta... **Beltzak** hiru dira: **txanka**, zalduna edo zaldia eta erregea.

Museko argota ezaguna da, baita euskaratik kanpo ere: **enbido**, **(h)ordago** eta **(h)amarreko**, adibidez. Baina nondik dator mus berba? Hainbaten iritziz euskaratik, musu hitzetik, hain zuzen ere; ahoa musu emateko eran ipintzen delako jokaldi on baten (hiru errege eta batekoa) zeinua egiten denean. Beste batzuek uste dute latinetik datorrela, *muss* aditzetik (isilik egon), edo frantsesaren bitartez, *mouche* (eulia) berbatik.

Musaren lehenengo erreferentzia idatzia Manuel Larramendi andoaindarrak eman zion, 1745ean liburuki bitan argitaratu zuen *Diccionario trilingüe del castellano, bascuence y latín* lanean. Bertan azaldu zuen musean musua erabiltzen dela (ezpainak, muturra eta aurpegia) keinuak kideari egiteko, eta mus berba horren laburdura baino ez dela.

Keinuak oso garrantzitsuak dira musean. Bikoteka jokatzeko denez gero, aukera dago gure jolaskideari zer karta edo jokaldi daukagun zeinu bidez adierazteko: bi errege (beheko ezpaina hozkatu), hiru errege (ezpainak ertz batera okertu), **dupleak** (bekainak altxatu), **hogeita hamaika** (begi kliska)...

Egin dezagun musean, **esku** gara eta. Erakuts dezagun esporta dezakeguna inporta zaigula. Musaren sor marka dugu; hiztegia eta kartak ere bai. Balia dezagun, ba, karta joko ederrenetako batekin euskaraz gozateko aukera. Hordago! **Gura!** ◀



Berba azoka

Mus

Bi bikoteren artean jokatzeko den karta joko, jatorriz Euskal Herrikoa.

Sorta

Hemen, karta multzo osoa.

Sail

Karta sortako lau sailtako bakoitza: urreak, kopak, ezpatak eta bastoiak.

Bateko

Irudi bakarra daukan karta; bateko urrea, bateko bastoia...

Beltz

Pertsonaren edota animalia irudia erakusten duten kartak: txanka, zalduna eta erregea.

Txanka

Ezkutari baten irudia erakusten duen karta. Sin.: xangoa, txota.

Enbido

Bi tantoko apustua.

Hordago

Partida osoa apostatzeko erabiltzen den esapidea.

Hamarreko

Musean, bost banako balio duen tantoa.

Duple

Musean, bi pareren edo lau karta berdinen multzoa.

Hogeita hamaika

Musean, jokoa ataleko jokaldirik onena.

Esku

Musean, hurrenkeraren arabera lehenengo jokatzeko egokitzen zaion laguna.

Gura

Musean, apustua bere horretan onartzen dela adierazteko hitza.

Azkar ibili, edo argazkiak galdu

Kirolen argazkiak egiteko, abiadura da gure lehentasuna, baina fokuratzea, sentsibilitatea edota distantziak ere oso garrantzitsuak izango dira. Beraz, zure kamera ondo ezagutu beharko duzu ondorengo lagungarri egiteko.

Foku-distantzia luzeak

Zaila da kirolari buruzko argazki on bat lortzea objektibo espezializatu onik gabe. Objektibo horiek prezio altuak izaten dituzte, dena esan behar da, baina horretan maiz aritzea pentsatzen baduzu, dirua inbertitzea gomendatzen dizut, merezi izango eta aldea asko nabarituko duzu.

Teleobjektiboa deritzona da behar duguna; foku-distantzia luzeko lenteak, gutxienez, 70-200 mm inguruko zerbait beharko duzu. 300 mm-ra irits bazaitzke, hobe. Eta gehiago ere izan daiteke, egin nahi dituzun kirolen edo argazkien arabera. Foku-distantzia luze horiek aukera ematen dizute harmailen edo aulkiaren erosotasunetik edo subjektuaren «atzetik» eserita zauden lekutik, inolako ahaleginik egin gabe argazkia egiteko. Behar duzun zoom guztia egin ahal izango duzu, eta ez duzu ohiko objektiboaren (24-70 mm) muga sentituko.

Ez da behar-beharrezkoa, kiroleko argazkiak bestelako objektiboekin ere egin daitezke, eta egiten dira, angularrekin berbarako; baina, horretarako, kirolaren arabera, oso gertu egoteko aukera eduki beharko duzu. Horregatik, objektibo bat erosi baino lehen, proba ezazu ia erabilera emango dion edo ez jakiteko.



Argia, beti argia

Objektibo ideal horren bilaketan ere saiatu diafragma-irrekiera ahalik eta zabalena izan dezan. Irekiera handi batek argi gehiago sartzeko aukera eman eta argitasun gehiago lortzen lagunduko dizu. Gogoratu: zenbat eta handiagoa izan objektiboaren irekiera, orduan eta txikiagoa izango da haren f/ balioa. Adibidez, f/2.8ko batek f/3.5eko batek baino askoz ere irekiera handiagoa du.

Kontutan izan irekieraren tamainak asko garestitzen dituela objektiboak; beraz, kontuz ibili puntu horrekin, baloratu inbertsioa, baloratu zenbat aldiz egingo dituzun horrelako argazkiak, eta hartu erabakia.

Egonkortzailea gure laguna da

Normalean, foku-distantzia luzeetan (100, 200mm) argazkia lauso eta mugitua ateratzeko joera dago. Horren atzean dagoen azalpena oso zaila da kasurako, baina komeni da jakitea distantzia fokal horietan, hau da, kiroleko argazkigintzarako erabiltzen diren distantzietan, komeni dela objektiboak irudi-egonkortzailea izatea.

Irudi-egonkortzailea da argazkia gutxiago mugitzen laguntzen duen funtzio bat. Ez du beti bibrazioa ezabatzen, baina, gutxienez, saihesten laguntzen du.

Funtzio horrek izen ezberdinak ditu markaren arabera, batzuetan *OIS* deitzen da, beste batzuetan *IS*, *VR*... eta objektiboan aurkituko duzu botoia normalean.

Gaur egungo kamera askotan ere irudi-egonkortzailea izango dute kameraren gorputzean. Haien aukera eta modu ezberdinak ezagutzea komeni da, argazkiak mugituta atera ez daitezen.



Modu manuala edo erdi-manualak

Zure reflex kamerak, askotan, kiroleko modu aurre-konfiguratu bat eskainiko dizu lehenetsita. Erabil ezazu, aukera ona da, batez ere, denbora asko ez daukazu uneetan, argazki gutxi azkar egin behar dituzunean edo argazkiaren edertasuna interesatzen ez zaizun uneetan, baizik eta ekitaldia argazki zuzen eta garbiekin dokumentatzeko.

Hala ere, urrats bat harago joan nahi baduzu, argazkien gaineko kontrol handiagoa izan nahi baduzu, zure teknika hobetu nahi baduzu eta zure argazkiei sormen pixka bat gehiago bota nahi badiezu, kameraren gida irakurri eta erabiltzea gomendagarria da.

Modu manualarekin obturazio-abiadura eta diafragma irekiera kontrolatu ahal izango dituzu. Hasieran modu zaila da, baina egokiena dela uste dut.

Modu manualean apur bat seguru ez bazaude, gutxienez zure kameraren erdi-automatiko moduren bat erabiltzea proposatzen dizut: obturazio-abiadurari lehentasuna (*S*, *TV*).

Abiadurari lehenasuna ematen diogunean, kamerak erabakiko du zein den irekidura egokiena, eta guk bakarrik abiaduraz arduratu beharko gara. Orokorrean modu hau komeni zaigu, batez ere mugimendua izozteko nahi badugu.

Abiadura

Argazkigintzan, momentua izoztu eta argazki garbiak lortu nahi badituzu, abiadura azkarrak erabili behar dituzu. Kirolak duena da; denak azkar mugitzen dira, eta obturazio-abiadura azkarrik erabiltzen ez baduzu, argazki mugituak eta lausoak ateratzeko arriskua dago. Hori, batzuetan, artistiko ki nahi izango dugu, baina normalean ez.

Kirolaren arabera abiadura ezberdinak erabili ahal ditugu, eta gauden distantziaren arabera, abiadura handiagoa edo baxuagoa beharko dugu. Oso urrun baldin badago akzioa, abiadura ez da hain azkarra izan behar, agian 1/200 nahikoa izango da. Baina ekintzatik oso getu bagaude, posiblea da 1/1.000s behar izatea.

Nire aholkua da 1/300s abiadurarekin hastea, eta probatzen joatea; mugituta ateratzen badira lehengoak, igo abiadura.



ISO altuak?

Argiaren baldintzen eta objektibo motaren arabera, baliteke argazkiak ilun ateratzea nahi dugun abiadurarekin.

Kasu horretan, kameraren ISO sentsibilitatea apur bat igo dezakezu, baina kontu handiz egin ezazu, zenbat eta sentsibilitate handiagoa ISO zarata (digitala) handiagoa agertuko baita argazkian. Probatu ISO 200, probatu ISO 400, eta, horrela, balio batera iritsi arte, non argazkia behar bezain argitsua den, baina zarata gaizto horrek hondatu gabe. Horretarako, oso gomendagarria da kamera ezagutzea, eta ISOa kontrolatuta edukitzea, jakitea adibidez:

800 ISO erabilita zarata gutxi daukazula, baina 3.200 ISO jada ez dela erabilgarria. Orduan, hori jakinda, beti ibiliko zara 200 eta 2.000 ISO artean, ahal duzun guztietan baxue-
na erabiliz.

Mono-oina edo tripodea erabili?

Kirola erlazionatzen dugu mugimendurekin eta akzioarekin, baina gu, batzuetan, kokaleku finko batean egongo gara argazkiak egiten. Leku batean geldi gaudenerako, oso lagungarria izan daiteke mono-oina edo tripodea erabiltzea. Lagunduko digu egonkortasuna lortzen eta bibrazioak ekiditen. Eta orduak pasa behar ditugunean kamera eskuan eta objektibo pisutsuekin, gainera, eskertuko dugu.

Tiro-sorta moduak

Zure kameraren menuan pixka bat kuxkuxeatzen baduzu, «Tiro egiteko moduak» izeneko zerbait aurkituko duzu, «Tiro-sorta» moduan. Horrela, 5, 10 edo 20 argazki egin ahal izango dituzu jarraian, disparadorea sakatzen duzun bakoitzean. Modu hori oso ezberdina da kamera bakoitzean, horregatik da garrantzitsua jakitea zelan funtzionatzen duen gurean. Modu hori erabilita ziurtatuko duzu 5 edo 10 argazkietatik ziur aski txukunen bat lortuko duzula.

Erabilgarria da ere bai mugimenduen animazioak lortzeko, segundo batean 10 argazki aterata mugimenduen sekuentziak lortuko baititugu.



Fokuratzea


Partidu edo lehiaketa batean argazkiak fokuratze manuala erabiliz egin nahi badituzu, erotu egin zaitezke. Posiblea da egitea, baina ez da erosoena. Gomendatzen dizut zure kameraren fokuratze automatikoa erabiltzea, kamera azkarra eta autonomoa baita, eta ia beti asmatu egiten du.

Modu ezberdinak daude, eta beharrezkoa da ondo ezagutzea ematen dizkigun abantailei etekina ateratzeko.

AF-S. Puntu finko batean fokua egingo du.

AF-C. Fokua jarraituko du enkoadorean agertzen den elementua, kirolaria, animalia, motorra... Oso garrantzitsua da ondo konfiguratzea dituen aukerak, abiadura ezberdinak dituztelako batzuetan... Hau izango da gure lehenasuna, kamerak egingo duelako lan zaila: elementua fokuan mantentzea.

MF. Fokuratze manuala: zuk egin beharko duzu eskuz fokua eta asmatu. Ez da oso gomendagarria.



Maiatzean:

Edizioa eta errebelatua



Bilatu Goiko animalia hauetatik bat ez dago mundu-mapan. Zein?

Handitik txikira

Ordena itzazu hartz hauek handitik txikira, 1etik 9rako zenbakiak erabiliz (handienari 1 eman eta txikieneri 9).



Estreinatu aparkalekua
Mungian eta zure
egunerokotasuna hobetu



P2

P2

Bai, Hemen 

aurkituko duzu zure
aparkalekua preziorik onenean.



Erref 6078903

Ez galdu aukera **eraikitako 23 m²-ko plaza zabal eta eroso** erosteko. Herriaren mendebaldean, komunikazio oso onak dituen bizitegi-ingurune batean eraiki berri den eraikin batean. **6.255 €-tik aurrera**. Gainera, trastelekua duten partzelak ditugu eskuragami.



Honez gain, erabilera anitzeko 2 merkataritza-lokal ditugu, barne-banakatarik gabekoak eta faxxada handikoak, eraikinaren beheko solairuan.

1. lokala

Erref. 60501815

61 m² ~~54.000€~~ **48.800€**

2. lokala

Erref. 60501919

175 m² ~~145.500€~~ **132.000€**

Ez galdu aukera eta egin iezaguzu zure eskaintza. servihabitat.com

 **Servihabitat**

servihabitat.com

2022/03/29ra arte balio duten prezioak. Web orri honetan dagoen informazioa eguneratu egin daiteke aldez aurretik abisatu gabe, beraz, kasu berekiztan 942 049 000 zenbakia erabiliz berretsi behar da. Prezioek ez dute erosaren kontura diren zergarik eta gasturik barne hartzen. Iragaritako produktuak Jabetza Enregistrotan inskribatzeko izapidean egon daitezke. Erabilizaren salerosketan eta alokairuan kontsumitzaileak babestari buruzko apirilaren 21eko 515/1989 Errege Dekretuan, araudi autonomiko osagarrien, energia-zurtagarri buruzko apirilaren 13ko 235/2013 Errege Dekretuan eta gainerako legeria aplikagarrian alperutzako informazio guztia erabiltzaileen eskura dago gure bulegoetan, Burgo Etorbidean, 12, 28036 Madrid. Webgune honetan iragaritako produktu guztiak Servihabitat-ek komertzializatzen ditu.

hirukalagunen txokoa

Sari ederrak eskura!

Zozketa

Tribiz, baserri galdue

Jon Ander Urrestik sortutako antzezlan eder hau taularatuko dute apirilaren 29an Muxikebarrin, 21:00etan. Horretarako hiru sarrera bikoitz ditugu zozkatzeko. Baten bat gura duzu?

Zozketan parte hartu gura baduzu, apirilaren 20a (eguztana) baino lehenago bidali zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hona: hiruka@hiruka.eus; edo bete Zozketak ataleko formularioa.



Zozketa

Errigorako saski beltza

Udaberrian Nafar hegoaldeko uzta eskutik eskura zabaltzeko kanpaina abiatu du Errigorak. Hala, urtero legez, saskiak ditugu zuon artean banatzeko. Saski beltza gura duzu?

Zozketan parte hartu gura baduzu, apirilaren 27a (eguztana) baino lehenago bidali zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hona: hiruka@hiruka.eus; edo bete Zozketak ataleko formularioa.



Zozketa

***Grimpeneko aztia* liburua**

Ibaizabal argitaletxeari esker, 10 urtetik gorako umeentzako misterioz betetako eleberrri hau zozkatuko dugu HIRUKAlagunen artean. Zurea izatea gura duzu? Bada, eman izena!

Zozketan parte hartu gura baduzu, apirilaren 27a (eguztana) baino lehenago bidali zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hona: hiruka@hiruka.eus; edo bete Zozketak ataleko formularioa.



Zelan egin HIRUKAlagun?

Webgunean: hiruka.eus/harpidetza/laguna

Idatziz: hirukakoop@hiruka.eus

Deituz: 944 911 337 • 688 812 368

Urtean 35 euroren truke, Uribe Kostako euskarazko komunikazio-taldearen bultzatzailea eta partaidea izango zara.



MAIATZAK 19 - 20 - 21 - 22 MAYO 2022



UMIORE AZOKA

XXII FERIA DE ARTISTAS CALLEJEROS DE LEIOA

